

# hiruka

195. zenbakia  
2023ko maiatza



**M28 Udal-hauteskundeak Uribe Kostan**

# Hasi da bozken jokoa



## MAIATZA

### MUSIKA



### VOILÁ TRIO

MAIATZAK 12 OSTIRALA 21:00 / 8 €

### ANTZERKIA



### EZ NAIZ INOIZ DUBLINEN EGON TENTAZIOA

EKAINAK 13 LARUNBATA 19:30 / 8 €

### MUSIKA



### EUSKADIKO ORKESTRA

MAIATZAK 19 OSTIRALA 19:30 / 20 €

### MUSIKA




### JULEN

MAIATZAK 19 OSTIRALA 21:00 / 8 €



# Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Maiatzaren 28ko udal-hauteskunderi begira
- 16 Hirudika: Getxophoto jaialdia
- 22 Maria Ptqk, Getxophotoko komisarioa
- 26 Hezkuntza gehigarri berezia
- 36 Lehen/orain
- 37 Mundukatuak
- 38 Meñakoz Kultur Elkartearen 20. urteurrena
- 39 Getxoko San Isidro jaiak
- 40 Zinez diot eta Irakurrian
- 41 Usategi
- 42 Maria Garaizabal, oihakrobatikoetako irakaslea
- 44 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 46 Iritziak
- 47 Zozketak



# hiruka

**HIRUKA kooperatiba elkarte**

**Helbidea:** Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

**e-posta:** hiruka@hiruka.eus

**Posta-kutxa:** 171

**Telefonoa:** 944 911 337

**Publizitatea:** Maria Gorostiola

**Erredakzioa:** Iker Rincon Moreno, Nahia Martinez Gondra, Hodei Torres eta Ander Zarraga

**Diseinua:** Artefakto

**Kudeaketa eta administrazioa:** Ziortza Merino

**Zenbaki honetako kolaboratzaileak:** Ekaitz Herrero, Maitane Nerekan, Julen Nafarrate, Iñigo Esteban Lezkano, Iratxe Ormatza, Joseba Santxo, Gotzon Batikon eta Ainhoa Ortells

**Filmazioa eta Inprimategia:** Gertu Inprimategia

**Lege-gordailua:** BI-2022-2014

**ISSN:** 2386-98-95

**Ale-kopurua:** 5.000

**CC-BY-SA**

## Erakunde laguntzaileak



**Getxo**  
bizi ezazu



**Leioa**  
IDALA. AYUNTAMIENTO  
Euskara Zerbitzua



**Berangoko Udala**



**Barrikako Udala**



**Gorlizko Udala**



**Urdulizko Udala**



**Lemoizko Udala**

# Bizkaia

*foru aldundia  
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika  
Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua.



## Ordena, etekina

EKAITZ HERRERO SAN MARTIN



Urtarrila eta ekaina bitartean, Erandion hamar bonbardaketa izan ziren gerra garaian. Faxisten hegazkinek 29 hildako eta 37 zauritu eragin zituzten 30 egun horietan bakarrik. Apirilean ere, sei eraso gauzatu ziren Getxoko Areeta auzoaren kontra; hiru Negubiden eta beste hiru Algortan. Urtemuga horiek oharkabean igaro dira herriotako udal-gobernueztat.

Jakin badakigu alderdi kapitalisten eta liberalisten konpromisoa memoria antifaxistarekiko antzezlan makabro bat besterik ez dela. Faxismoaren jagolerik fidelena izan da kapitalismoa historian zehar. Baina intolerantziarik gabeko etorkizuna eraikitzeko helburuan, sozialdemokraziaren txepelkeria ez da inolako bermea.

Kapitalistek ez dute inolako barren-kezkarik euren interes ekonomiko eta politikoak bermatzen baldin badira. Eta sozialdemokraziaren kezka bakarra sistema kapitalista ez amorraraztean datza.

Zorionez, badira pertsona banako eta kolektibo ugari intolerantziaren kontrako ohiko borrokak pizturik mantentzen dituztenak. Baina Erandioko eta Getxoko udal-gobernuetan dauden alderdi politikoak ez daude horretan. Nahiago dute ordena eta etekina; nazien modu berean.

## Sauron. Inperioak. Hauteskundeak

MAITANE NEREKAN UMARAN Filosofia irakaslea



Badator maiatza. Hilabete ederra gurean, Gorrondatxe paradisu dela gogoraziz. Badator maiatza, pala txapelketa herrikoiekin, kirola herrikoia eta auzolanean izanda osasuntsuago dela irakatsiz. Badator maiatza, batzuen ikasturte amaierekin (animo gazteak!) eta besteen udako lanen (gehiegitan prekarioegien) hasierarekin. Badator maiatza, sanisidroen herri-kulturaren irakaspenerekin (gora jai herrikoiak!). Badator maiatza udal-hauteskundeekin.

J. R. R. Tolkienek irakatsi zigun, boterea eraztun bakarrean kontzentratzen bada, gaixotu egiten duela. Politika instituzionalaren atxikimendu falta gure artean larria da. Abstentzio mailak ikaragarriak dira eta, bozkatzeko dutenek ere, «politikak ez du ezertarako balio» Coca-cola leloa dute ahotan. Ados, politika instituzioetan egiten dena baino askoz gehiago da; gaztetxe, ikastetxe, zahar-etxe eta zoroetxeetan ere, politika asko egiten da, hitzaren jatorrizko zentzu handi eta ederrean. Polisaren ardura hartzen da herriko jai batzordean edo guraso elkarteetan, osoko bilkuran baino gehiago. Baina eraztuna elikatzen jarraitzen bada, Sauronek Uribe Kosta inperio propio bezala ulertzen jarraituko du. Kontuek ez dute ematen; kexuka zabiltzaten horiek, sobretxoia Sauronen alde erabiliko duzue maiatzaren 28an. Egin apustu!

## Puntua eta kontrapuntua M28 hauteskundeak

# Esku-hartzea



*Kexak adierazten  
luze daramagu  
herrian bizitzeko  
nahia baitaukagu,  
edo gure larreak  
ez ditzaten saldu.  
Bozkatzeak zeozer  
aldatu ahal badu,  
saiatzeko aukera  
ez dezagun galdu.*

OIHAN  
DIAZ  
FRANCO  
Algorta

*Bozka emanda erakutsi  
liteke indarra,  
baina dena ez dugu  
esnegain aparra.  
Kudeaketa dugu  
maiz lauso samarra,  
bihar lehor ez dadin  
gaurko asmo edarra  
esku-hartze zuzena  
ez da hautu txarra.*

JOSU  
LANDETA  
EGURROLA  
Getxo





Aritza Gabiria Agirre Harakina

# «Algortan jendeak betiko sukaldaritza baloratzen du»



**Estatuko tostada txapelketa irabazi barri du Algortako Gabiritta Harategiak. 27 urte eta gero, garai berrietara egokitzen asmatu dute, betiko ohitura galdu barik.**

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶

**G**araipen-ikurrentzat leku barik geratuko dira laster Gabiria Harategian. Azken asteetan hiru txapelketa irabazi dituzte, Aritza Gabiriak aitortu duenez, asko gustatzen baitzaie txapelketetan lehiatzea: «Ikargari ondo pasatzen dut, nahiz eta batzuetan apur bat pikatzen naizen». Oraingoan ez du «pikatzeko» beharrik izan, Estatuko tostada txapelketa irabazi barri baitu. Ez-ohikoa da hori harategi batentzat: «Beste guztiak gozotegiak edota tabernak ziren, gu izan gara harategi bakarra». Tostaden errezeta bere ama Jaione Agirrerren eskutik jaso zuen, eta Jaionek bere amaren eskutik... : «Familia tradizioa da. Bere osagaiak dira esnea, arrautza, azukrea, ogia, kanela... eta kontatuko ez dizkizudan beste hiru sekretu».

Tostadetan bakarrik ez, bestelako errezeta eta plateretan ere garaikurrak irabazi dituzte Gabiriatarrek: «Orain dela hilabete katxopo tradizionalaren saria eta hamburgesa barritzailearena irabazi genuen». Hamburgesa hori ahuntz-gazta, tomate lehor eta pistatxoagaz egin zuten: «Kontrakoa dirudien arren, harategietan beti izan gara oso barritzaileak, ez dugu beste erremediorik izan». Supermerkatuen lehiaren aurrean, euren eskaintza zabaltzen saiatu dira Gabirian: prestatutako janaria, postreak... «Orain, behintzat, txapelketek ikusgarritasuna eman digute».

Aritzagaz batera, Mikel anaia eta Soiartze Unibaso berangoztarra ari dira beharrea: «Duela bost urte urpekaritza utzi eta negozioan bete-betea sartzea erabaki nuen. Jendeagaz hartu-eman gustatzen zait». Algortan betiko sukaldaritza estimatzen dela dio: «Tradizio handiko sukaldaritza dago, etxekoa, betikoa, eta iruditzen zait jendeak garrantzia ematen diola horri». Baina badaude salbuespenak...: «Jende bati gustatzen zaio kobe-hamburgesa horiek jatea gero Instagramera igotzeko, baina gero ez dituzte inoiz ganorazko mäsailak edo tripakiak jaten. Hori ez da gure estiloa». ◀



# Aldaketarik egongo ote da?

Lau urte igaro dira 2019ko udal-hauteskundeek tokiko gobernuen osaketa erabaki zutenetik. Urte hartan, EAJ izan zen nagusi, EH Bilduren aurretik. Jeltzaleek alkatetza guztiak eskuratu zituzten eskualdean baina, orain, indarrak batuta, koalizio abertzalea Uribe Kostan jokoan dauden agintemakiletakoren bat eskuratzeko prest dago. Dena dago jokoan hilaren 28rako.

TESTUA: IKER RINCON MORENO • GRAFIKOAK: ARTEFAKTO ▶

**M**aiatzaren 28an, domekan, uribekostarrek hitzordu bikoitza izango dute hautetsontziakaz, udal- eta foru-hauteskundeak izango baitira egun horretan. Kampaina maiatzaren 12an abiatu zen, gauerdian, eta, hilaren 27ra bitartean, udalerriz udalerriko alkatetzetarako hautagaiak euren programak eta asmoak jendaurrean aurkezten dabilta, herrikideen botoa bereganatzeko norgehiagoka bizian.

Pandemia betean, 2020ko uztail arraro hartan, musukoa jantzita eta konfinamendu luze batetik irten berri, Eusko Legebiltzarra osatzeko hauteskundeak izan genituen. Beheko taulan ikus daitekeenez, abstentzio-maila altuko bozketa izan zen, eta EAJ izan zen nagusi Uribe Kostako herri denetan, EH Bilduren

## Abstentzioa

«Demokraziarekiko babesa handia den arren, askok urruntasuna sentitzen dute, eta horrek eragina du abstentzioan»

## Aliantzak

«EAJren eta PSE-EEren arteko aliantza-akordioaren ondorioz, zaila izango da aldaketarik egotea»

aurretik. Hori ikusita, baita udal-hauteskunde azken bozketa bien emaitzak aztertuta ere, Jon Azkune EHuko politologoak uste du koalizio abertzaleak bere posizioak indartu dituen arren, litekeena dela eskualdeko udalen agintari guztiak –edo gehienak– jeltzaleak izatea oraingoan ere.

**HERRI-HAUTAGAITZAK, GAKOA.** Udal-hauteskundeek, gertukoak izanagatik-edo, parte-hartze handiagoa izan ohi dute. Gainera, tokiko gobernua osatzeko bozkeren berezitasun garrantzitsua dutela gogoratu du adituak: herri-hautagaitzak. Horiek, azken urteotan eskualdean alkatetzarik izan ez duten arren, gobernuan nor egongo den erabakitzeke giltza izan ohi dute, 2015ean, Plentzian, eta 2019an, Sopelan izan zuten bezala. Lehengoan, EAJk boto gehien jaso arren, EH Bilduk hartu zuen hiribilduaren agintemakila Independentek taldeko zinegotzien aldeko

## 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde emaitzak

Barrika		Berango		Erandio		Getxo		Gorliz	
	2020		2020		2020		2020		2020
EAJ	%45,1	EAJ	%44,4	EAJ	%42,4	EAJ	%43,5	EAJ	%51,2
EH Bildu	%31,2	EH Bildu	%25,2	EH Bildu	%22,1	EH Bildu	%17,3	EH Bildu	%27,3
Podemos-IU	%6,5	Podemos-IU	%7,3	Podemos-IU	%9,4	Podemos-IU	%6	Podemos-IU	%7,3
PSE-EE	%8,1	PSE-EE	%10,6	PSE-EE	%17,8	PSE-EE	%10,3	PSE-EE	%6
PP+Cs	%5,8	PP	%7,3	PP+CS	%4,3	PP+CS	%17,1	PP+CS	%4
VOX	%0,4	VOX	%2,2	VOX	%1,6	VOX	%3,2	VOX	%0,9
Besteak	%2,5	Besteak	%2,8	Besteak	%2,6	Besteak	%2,6	Besteak	%3,4
ABSTENTZIOA	%49,2	ABSTENTZIOA	%57,1	ABSTENTZIOA	%50,1	ABSTENTZIOA	%42,7	ABSTENTZIOA	%40,5

## Uribe Kostako udal-hautagaitza nagusien bilakaera.

\*Elkarrekin Podemos-IU 2019an aurkeztu zen, baina 2016an Elkarrekin Podemos askotariko taldeak sustatu zituen, hala nola Denok Batera, Ganemos Erandio, GUK eta Esnatu Leioa. Ezker Batua-IU, berriz, beste koalizio batzuetan aurkeztu zen.

DATUEN ITURRIA:  
Espainiako Barne Ministerioa

	2019	2015
EAJ	%40	%36,7
EH Bildu	%20,1	%17,5
PSE-EE	%12,4	%10,5
PP	%10,2	%11,9
E. Podemos-IU*	%9,5	%13,7
Besteak	%7,8	%9,7
Vox	%1,1	-
<b>ABSTENTZIOA</b>	<b>%31,8</b>	<b>%29,4</b>

botoei esker; aurreko bi agintaldietan, berriz, Independentek eurak izan ziren gobernu-buru. Sopelan, aldiz, zinegotzi independenteak bere buruari bozkatu izanak ahalbidetu zuen EAJk agintea izatea, azken momentuko akordioari men eginez. Gortzen ere, 2007an, EAJ bozkatuena izan arren, independenteek lortu zuten gobernuaren buru izatea, PP, Ezker Batua eta EAren babesagaz.

Hartara, kasuan kasu, herritarren hautagaitzek baldintzatuko dute datozen lau urteetako herri mailako politika. Are gehiago ikusita aurreko azken urteetan baino herri-plataforma gehiago aurkeztuko direla.

EHuko politologoak dienez, gero eta handiago da politikarekiko mesfidantza eta desinteresa gizartean, eta ikuspegi kritikoa nagusi den testuinguru batean, herritarren interesak mahai-gainean jarriko dituzten plataformak gero eta paper handiagoa dute leku askotan. «Ohiko alderdiek erakartzeko ez du-

Jon Azkune EHuko politologoaren arabera, gero eta handiago da politikarekiko mesfidantza, eta herritarren interesen zerbitzuetara egongo diren hautagaitza independenteek paper garrantzitsua izango dute gobernuen osaketan.

ten gaitasuna dute horiek, eta giltza dira eta izango dira aldaketakarako», iragarri du.

**ALDAKETA GUTXI.** Azkenengo inkestek iradokitzen dute berriro ere jeltzaleak gorabehera handirik gabe gailenduko direla boto kopuruan. «Oso errotuta dago EAJ Bizkaian. Tradizioz bozka ematen dioten herritarrek dituzte, eta botoak orekatuta mantentzen dituen alderdia da. Bere arrakastaren gakoa hori da, transbertsala dela, adin-tarte eta klase sozial guztietan boto-emaldea dituela», Azkuneraren arabera. Hala ere, EH Bilduren bilakaera nabarmendu du, urteotan gorakada izan baitu eta, koalizio abertzaleak berak dienez, «bigarren indarra da orain». Ondorioz, talde horrek inoizko emaitzarik onenak lor ditzakeela uste du politologoak, baina aitortzen du gatz izango duela alkatetzaren bat eskuratzea, jeltzaleen eta sozialisten arteko aliantza-akordioaren ondorioz. Hartara, independenteek izango dute giltza oraingoan ere. ◀

### Leioa

2020

EAJ	%43,9
EH Bildu	%18,1
Podemos-IU	%10
PSE-EE	%14,4
PP+Cs	%8,3
VOX	%2,4
Besteak	%3
ABSTENTZIOA	%47,5

### Lemoiz

2020

EAJ	%51
EH Bildu	%39,3
Podemos-IU	%5,6
PSE-EE	%1,7
PP	%0,9
VOX	%0,2
Besteak	%1,4
ABSTENTZIOA	%32,7

### Plentzia

2020

EAJ	%49,1
EH Bildu	%29,7
Podemos-IU	%5,9
PSE-EE	%6,7
PP+CS	%4,2
VOX	%1,5
Besteak	%3
ABSTENTZIOA	%36,8

### Sopela

2020

EAJ	%44,2
EH Bildu	%31,3
Podemos-IU	%9,1
PSE-EE	%8
PP+CS	%2,9
VOX	%1,1
Besteak	%3,4
ABSTENTZIOA	%44,3

### Urduliz

2020

EAJ	%46,3
EH Bildu	%29,6
Podemos-IU	%7,7
PSE-EE	%6,8
PP+CS	%3,1
VOX	%1,1
Besteak	%5,5
ABSTENTZIOA	%42,6



## GETXO

# HAP0a, etxebizitza eta ingurumena, proposagai

**Azken inkestean arabera, EH Bildu bigarren indarra izan daiteke, popularrei zinegotzi bat kenduta. Gainontzekoek orain lau urte izandako emaitza bera errepikatuko lukete. Hala ere, betiko legez, dena dago jokoan oraindino ere.**

**T**radizioz udalerriko oposizioiko talde indartsuena izan den PPK lekua egin liezaioke EH Bilduri, azken urteetako indar-metaketa emaitza gisa bost zinegotzi lor litzakeelako, azken inkestean arabera. Aginte-makila, berriz, EAJk eskuratzea aurreikusten da eta, hartara, Amaia Agirrek errepikatuko du agintean. Gainontzeko alderdietan aldaketa gutxi espero da.

Talde nagusien zerrendaburuetan ia aldaketarik ez da egon; EAJk, PPK eta PSE-EEK errepikatuko dituzte alkategaiak. Aitzitik, EH Bilduk gaur egungo zinegotzi den Mikel Bildosolaren aldeko apustua egin du, eta Elkarrekin Podemos koalizioak, berriz, Xabier Benito jarri du taldea zuzentzen.

Aldaketa gutxi espero dira emaitzetan, baina ikusteke dago azken hilabeteotan kalean bolo-bolo ibili diren gaiak zelako eragina izan dezaketen boto-asmoan, hala nola Itzubaltzeta/Romoko nagusien etxearen eraistea eta HAP0 berriaren onartzea. Etxe-

bizitza-arazoak ere zeresan handia du gazte, eta ez hain gazte askoren artean. Eta horren isla dira hautagaien programak.

**PROPOSAMENAK.** Hirigintza-planak leku nabarmena hartu du hautagaitzen proposametan: EAJ eta PSE-EE egindako bideari helduta behin betiko onartzearen alde daude, eta oposizioa, Podemos eta EH Bildu batez ere, hori berregitearen alde, «bestelako herri-eredu bat egingarria delako». Etxebizitza eta gazteen emantzipazioa ere hautagaitzen apustu irmoa dira. Ildo horretan, besteak beste, EAJk alokatzeko etxe publikoak, libreak eta lankidetzakoak iragarri ditu. EH Bilduk, berriz, etxebizitza sozialei lehentasuna ematea aldarrikatu du, baita hutsik daudenak merkatuan jartzea ere, besteak beste. Ildo horretan ere, talde moreak alokairuzko prezioak mugatzea eta etxebizitza kooperatiboak promozionatzea eskatu du, eta sozialistek, besteak beste, Itzubaltzeta/Romoko belaunaldien arteko zentroan eraikiko diren 40 etxebizitzak eta udalerriko mai-lako 2023-2035 plana nabarmendu dituzte.


Ingurumenak, mugikortasunak eta garraio publikoak ere aipagai dira hautagaitza gehienen artean, eta alderdi bakoitzak bere proposamen propioak egin ditu, hala nola Getxo Aisia eraikitzea (PSE-EE), Getxo Abentura gunea sortzea (EH Bildu), tokiko Kultura Mahaia eratzea (Podemos) eta Martiturriko enpresa-parkea bultzatzea (EAJ).

## Alkategaiak\*



\* **OHARRA:** Gaur egun Udalean ordezkartza duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

Horiez gainera, Alejandro Zabala (Libres por Euskadi), Rafael Moreno (VOX) eta Francisco Javier Amezaga (STOP) aurkeztu dira hautagai.



LEIOA

# Ageriko aldaketa gutxi

**Aurten bost alderdi politiko lehiatuko dira Leioako makilagatik. Batzuek ezagunak diren hautagaiak errepikatuko dituzte, eta beste batzuk, aldiz, aurpegi berriakaz datoz.**


**L**eioako Udaltzatzen osaketan aldaketa gutxi eman ziren 2019ko hauteskundeetan, eta aurten ere aldaketa gutxi aurreikusten dira. Aurkeztu diren bost alderdien hautagai gehienak ezagunak dira eta, zerrendaburuak aldatu badira ere, gehienak zinegotziak izandakoak dira orain arte.

Ibon Rodriguez EAJko zerrendaburua Alkatezara aurkeztuko da bigarren agintaldirako, eta, orain arteko joera ikusita, lite-

keena da karguan errepikatzea. Ikusteko egongo da gainontzeko eserlekuak nola banatuko diren. Alde batetik, EH Bildun eta Podemosen, hurrenez hurren, Marijo Peleteiro eta Luis Miguel Lapeña egungo zinegotziak estreinatuko dira zerrendaburu gisa. PSE-EE alderdiari dagokionez, Juan Carlos Martinezek hautagaitza errepikatuko du, eta Jon Albisu izango da PPren hautagai berria.

Azken hilabeteotan, herritarren bozkerabakian eragina izan dezaketen hainbat kontuk bereganatu dute arreta Leioan. Aipagarrienen artean daude Bizkaiko Foru Aldundiak Avanzada errepidea estaltzeko lanak abiatu dituela edota hainbat protesta burutu dituzten auzo-elkarteek eta eragileek aurkeztu berri duten Leioa Bizigarri herritarren koordinakundea. Horiek bozkatzeko asmoan eragina ote duten maiatzaren 28az geroztik jakingo dugu.

## Alkategaiak



**Telegram kanala**

Uribeko Kostako informazioa zure eskura!

**aldai**

Tapiztegia  
Dekorazioa  
Erakusketa  
Tailerrak

Algortako Etorbidea, 76,  
48991, Algorta  
944 60 90 31





ERANDIO

# Hautagai berriak eta arazo zaharrak

**Aurrekoetan baino sigla gutxiago eta oposizioaren hautagai berriak izango dira berritasun nagusiak Erandion. EAJk eta PSE-EEK orain arteko formula errepikatuko dute, eta oposizioak hautagai berriak bilatuko ditu botoak.**

**A**urreko hauteskundeetan eman zen sigla-dantzaren ostean, maiatzaren 28ko hauteskundeetara aurkeztu diren hautagaien zerrenda kopurua asko murriztu da.

Hasteko, Aitziber Oliban egungo alkateak agintaldia bigarrenez errepikatzeko aurkeztuko du bere burua, eta beragaz izango ditu orain arte gobernu-taldean egon diren zinegotzietako asko, baita aurpegi berri batzuk ere. Horretarako, jeltzaleek orain arte Erandion ezarritako bidea jarraitzeko hautua egin dute: udalerraren industria-gune zaharren berronertzea hainbat hirigintza proiekturen bitartez, herri-kohesioa areagotzen jarraitzea eta ekonomiaren garapena bultzatzea, besteak beste.

Aurreko udal-hauteskundeetan bigarren indarra izan zen PSE-EE, eta Jorge Gonzalez zerrendaburuak hautagaitza errepikatuko du oraingoan ere. Programan agindutako neurrien artean gizarte-ekintzaren alorre-

ko hainbat promesa nabarmentzen dira, hala nola etxebizitza publikoak egiteko lurrak erostea, etxez etxeko zerbitzua indartzea edo gizarte-larrialdietarako laguntzak hobetzea.

Boto-kopuruan bigarrenek oso hurbil geratu zen EH Bildu. Aurten, Imanol Eguskiza alkategaiagaz aurkeztuko da koalizio abertzalea, eta euren proposamenen artean HAPO berria egiteko prozesu parte hartzailea egingo dutela iragarri dute. Halaber, As-trabuduan udal-frontoia, udal-zerbitzuen deszentralizazioa edo barne-trafiko murrizteko neurriak ere agindu dituzte.

Azkenik, gaur egun Erandioko Udalean ordezkartza duen alderdiei dagokionez, Pablo Larrauri zinegotzia izango da Elkarrekin Podemoseko zerrendaburu.

Horiez gain, PPK eta Solidaria alderdiek ere zerrendak aurkeztu dituzte Udalbatzan sartzeko helburuagaz; ikusteko dago aurreko hauteskundeetako emaitzak hobetzerik duten.

Botoa baldintzatu dezaketen gertakarien artean, azpimarratzekoak dira Aldundiak proiektatu dituen itsasadarreko bulebarra eta Erandio eta Barakaldo lotuko dituen oinezkoentzako zubia, Tartangako berdegunearen inguruko eztabaida edo Asua industria-guneko lantegiek eragindako kutsadura-arazoak. Baliteke horrelako jarduerak ere eragina izatea oraindino erabakitzeaz dauden erandioztarrengan.

**Alkategaiak\***



**EAJ**  
AITZIBER OLIBAN



**PSE-EE**  
JORGE GONZALEZ




**EH BILDU**  
IMANOL EGUSKIZA



**E. PODEMOS**  
PABLO LARRAURI

**\*OHARRA:** Gaur egun Udalean ordezkartza duten taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

Erandion, PP eta Solidaria alderdiek ere zerrendak aurkeztu dituzte; hurrenez hurren, Iker Iribarren eta Jesus Andres dira horietako hautagaiak.



SOPELA

# Sigla-zopa Udalbatza osatzeko erronkan

**Sopelan, gurean ohikoak diren alderdi nagusiez gain, hiru alderdi independentek ere aurkeztu dituzte euren zerrendak. Daborduko nahastua zegoen Udalbatza hurrengo agintaldian ere are gehiago korapilatu daitekeela dirudi.**

**S**opela izango da maiatzaren 28ko hauteskundeetan zeresanik handiena eman dezakeen udalerrietako bat gurean.

Hasteko, aurreko hauteskundeetan bi bloke nagusien arteko berdinketa eman zenez – EAJ-PSE eta EH Bildu-Elkarrekin Podemosen artean –, Jon Gerediaga DB-TUko zinegotziari esker lortu zuen Josu Landaluzek agintemakila, baina jeltzaleak gutxiengoan egon dira gobernatzen, sozialistak aliatu izan arren. Hala ere, agintaldi erdian, 2021eko martxoan, ezustean, gobernu-taldeak Podemoseko zinegotzi transfugaren babesa lortu zuen eta, horri esker, besteak beste, kirol-instalazioen kudeaketa 15 gehi 5 urtez esleitzea lortu du Landaluzek. Gertaera horrek susmo txarrak piztu eta eztabaida garratza eragin zuen Udalbatzan.

Orain, egiteke dauden hauteskundeetarako gauzak are gehiago nahastu daitezkeela dirudi. Alde batetik, Jon Gerediaga DB-TUko

zinegotzi bakarrak alderdia utzi du desadostasunengatik, eta Bizkaia Bai alderdiagaz aurkeztu da. Beste alde batetik, DB-TUk bere hautagaitza aurkeztu eta hirugarren alderdi independente bat sartu da ekuazioan: AVS/SAA (Sopelako Auzo Alternatiba). Maria Gadea buru duen alderdi berria sopoloztar askoren neketik sortu da, gobernatzeko eta kudeatzeko beste modu bat dagoela sinetsita.

Horrez gain, azken lau urteotan hainbat kontuk baldintzatu dezakete sopoloztarren bozka. Aipatzekoa da, Zipiriñeren auzian aurrerapausoak eman diren arren, Hezkuntza Sailak ez duela oraindino eperik eman ikastetxe berria eraikitzeko, eta leku-arazoez bere horretan jarraitzen dute udalerriko gune horretan.

**PROPOSAMENAK.** Alderdien proposamenak hirigintzaren, zerbitzuen eta ingurumenaren alorrekoak dira batez ere. Batetik, EAJrentzat Sopelab proiektua izango da mugarri garrantzitsuenetariko bat, Udaltzaingoarentzako polizia-etxe berria, kirol-instalazio berrituak eta gazteentzako parkeez gain. EH Bilduri dagokionez, etxebizitzaren beharrianetan jarri dute azpimarra, eta babes ofizialeko eta alokairuko etxeak agindu dituzte. Trafiko arazoak ere sartu dituzte euren programaren barruan, eta, agintera heltzen badira, mugimendu feministarentzako Emakumeen Etxea eta gazteentzako eremu propioak eta baliabideak sortuko dituztela hitzeman dute.

## Alkategaiak\*



EAJ  
JOSU  
LANDALUZE



EH BILDU  
GURUZNE  
CARRASSON




PODEMOS  
EDER  
GARCIA



PSE-EE  
MARIA  
TERESA  
FERNANDEZ



DB-TU  
PERDERIKA  
JOSEBA



**\*OHARRA:** Gaur egun Udalean ordezkari duden taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

Sopelako udal-hauteskundeetara AVS/SAA eta BB talde independenteak eta PP alderdiak ere aurkeztu dituzte beraien zerrendak.



BERANGO

# Hazkundeari erantzun

Udalerrria asko handitu da urteotan, eta horrek eragindako behar berriei erantzuteko azpiegiturak eta zerbitzuak osatzeko beharra nabarmendu dute alkategaiak. Hirigintza-ereduak ere eztabaida isiotu du.

2019ko emaitzak



**E**skualdeko ibilbide politikorik luzeenetariko egin ondoren, Anabel Landa egungo alkateak hautagai izateari utzi eta lekukoa pasa dio Itziar Aginagalderi. Elkarrekin Podemos da zerrendaburua aldatu duen beste hautagaitza, gaur egun ordezkariak duten gainontzekoek alkategaiak mantendu duten bitartean.

Urteotan udalerrriak bizi izandako hazkundeak politika egiteko moduak aldara zi behar izan ditu, herritarren beharriak asetzeko, besteak beste. Ildo horretan mintzatu da EAJ, behar berriei erantzuteko azpiegiturak lortu eta gehitzea azpimarratu baitu, Lantzarte auzoa birmoldatzeko proiektua nabarmenduta. EH Bildu, aitzitik, hirigintza eredu «basatiari» amaiera emateko konpromisoa hartu du, baita alokairu sozialen aldeko apustu «irmoa» egin ere. Ingurumenak eta klima-aldaketari aurre egiteko konpromisoetan bat egin dute hainbat hautagaiak, besteak beste.

Alkategaiak

- EAJ**  
ITZIAR AGINAGALDE
- EH BILDU**  
DAVID MARTIN
- E. PODEMOS**  
EMILIO LOBATO
- PSE-EE**  
NEREA JIMENEZ
- PP**  
JORGE PANERA

GORLIZ

# Lankidetzaz jokoan

Gorliz Bizirik plataforma da udalerriko legegintzako honetako berrikuntza. Beraz, GIG-ren desegitearen ondoren, ikusteke dago alderdiek azken urteotako lankidetzaz jarraituko duten ala ez.

2019ko emaitzak



**A**lderdi guztiek dute ordezkariaren bat Gorlizko gobernu-lanetan; hortaz, erabaki garrantzitsuak hartzeko momentuan, gutxienez hiru alderdietako bik ados egon behar dute.

2019ko udal-hauteskundeetan EAJ, EH Bildu eta G.I.G.-k lortu zuten ordezkariak, 6, 4, eta 3 zinegotzigaz, hurrenez hurren. Aurten, 40 urte inguruko ibilbidea zuen Gorlizko Talde Independentea (GIG) desegin ondoren, Ekaitz Pau alkategai duen Gorliz Bizirik taldea sortu dute. Plataforma berriaren helburu nagusia da herritarraz eta herritarrentzat lan egitea, «ikasitakoaren esperientziatik abiatzeko».

Bestalde, egungo alkate den Nagore Utxupi jeltzalea da berriro ere taldeko zerrendaburua; eta, EH Bilduri dagokionez, Izaskun Ibarra aurkeztu da alkategai gisa. Hala, azken talde horren proposamenetako bat da «instalazio publikoak Gorliztar guttien zerbitzura egon daitezela bermatzea».

Alkategaiak

- EAJ**  
NAGORE UTXUPI
- EH BILDU**  
IZASKUN IBARRA
- G. BIZIRIK\***  
EKAITZ PAU

**\*OHARRA:** Gorliz Bizirik plataforma berria da, baina Gorlizko Independentetako gaur egungo hainbat zinegotzi hautagaitza honetan aurkeztuko dira. Horrez gainera, Txema Oleaga (PSE-EE) eta Javier Lanz (PP) ere aurkeztu dira alkategai.

## URDULIZ

# EAJren nagusitasuna

**Historikoki EAJk lortu du gehiengo absolutua Urdulizen; zehazki, 2003an, 2007an, 2015an eta baita 2019an ere. Beste aldetik, azken bi legegintzaldietan, EH Bildu izan da Udaleko bigarren indarra.**

**2019ko emaitzak**



**A**zken hiru legegintzaldietan Javier Bilbao izan da jeltzaleen zerrendaburu; ostera, orainoan, Jose Ignacio Olea izango da taldea zuzenduko duena. Alderdiaren proposamenen artean dago tokiko kalitatezko merkataritzaren sustapena, modu horretan, «bizirik dagoen udalerri bat eratzeko».

Horrez gainera, EH Bilduko zerrendaburu gisa aurkeztu da Itziar Iratzagorria, eta, bere proposizioen bidez, erantzuna eman gura die Urdulizko hazkundearen ondorioz udalerrian sortutako beharrei: besteak beste, Urdulizen eraikiko dituzten etxebizitza berriak alokairu sozialera bideratzeko nahia, edota garraio-publiko berriaren soruntza UrdulizBus deituriko autobusagaz.

Bestalde, azken legegintzaldian zinegotzi bakarra lortu zuen Podemos, Ezker Anitza-IO, eta Ekuo Berdeak aliantzak, eta, aurten, berriro aurkeztu da bozketara Francisco Antonio Rodriguez, zerrendaburu izanik.

### Alkategaiak



**EAJ**  
JOSE IGNACIO OLEA



**EH BILDU**  
ITZIAR IRATZAGORRIA



**E. PODEMOS**  
F. ANTONIO RODRIGUEZ

## LEMOIZ

# Betiko bipartidismoa

**Bederatzi zinegotzi ditu Lemoizek eta azken agintaldietan EAJren eta EH Bilduren artean banatu dituzte jesarlekuak. Izan ere, PSE-EEren eta PPren boto-uzta oso txikia izaten da udalerrian.**

**2019ko emaitzak**



**A**urten ere Jesus Mari Arizmendi izango da ezker abertzalearen zerrendaburu, eta duela lau urte bezala, taldearen helburu nagusia da «udalean jarduteko modua aldatzea». Horretarako, EH Bilduk adierazi du azken legegintzaldian bizitako «frustrazioez» ikasi duela, eta, betiere, ezinbesteko ikusten duela alderdi politikoaren lankidetzaren sustapena, baita herritarren parte-hartze aktiboa bilatzea ere. Halaber, gobernantza kooperatibo bat sortzeko neurriak proposatu ditu taldeak: esaterako, zinegotzi guztiek izango dute arloko ardura hartzeko aukera, eta Informazio Batzordeak gaien lanketarako guneak izango dira.

Bestalde, aurten EAJk alkategai berria aurkeztu du: Antxon Abaroa armintzarra. 12 urtez Udaltzako zinegotzia izan ostean, Abaroak orain arte alkate izan den Iñaki Alonso ordezkatu du udal-hauteskunde hauetan zerrendaburu gisa.

### Alkategaiak\*



**EAJ**  
ANTXON ABAROA



**EH BILDU**  
JESUS MARI ARIZMENDI

**\*OHARRA:** Gaur egun Udalean ordezkariak duden taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

Horiez gainera, Luis Maria Salas (PSE-EE) eta Jesus Lopez (PP) aurkeztu dira alkategai.



PLENTZIA

# Bipartidismoa apurtuta?

**Oraingoan ere talde independente bat aurkeztuko da hiribilduko gobernu-taldea osatzeko hauteskundeetara. Isuskitzako hautesle-elkarteak gaur egun Udalak duen bipartidismoa apur lezake.**

2019ko emaitzak



**A**lkatetza eskuratzeko lehia handienetarikoa izango da Plentzia-koa. 2007an Isabel Zauruzaren talde independenteak agintea eskuratu zuenetik, hiru legegintzaldi itxaron behar izan zituen EAJk, 2019ra arte, alkate jeltzale bat ikusteko. Tartean, Zarauzagaz batera, EH Bilduko David Crestelo izan zen hiribilduko alkate (2015-2019). Azken honek lehia estua izan zuen 2019ko udal-hauteskundeetan, eta oraino bere ondorengo Aitor Garagarzak saiakera egingo du gaur egungo alkate Elixabete Uribarriri aginte-makila kentzeko. Bidean, hirugarren jokalaria bat agertu da, Miren Nekane Oraak zuzendutako Isuskitzako Hautesle Elkartea (AEI), auzune horretako herritarrez osatutako hautagaitza, «behingoz auzokideak ordezkatuak sentitzeko» helburua duena. Horrek podiuma aldaraz dezake, Isuskitza inguruko auzokideek EAJri eman baitzieten boto gehien 2019ko hauteskundeetan.

Alkategaiak



**\* OHARRA:** Gaur egun Udalean ordezkari duden taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

Horiez gainera, Maria Dolores Galilea (PP), Ernesto Martinez De La Hidalga (PSE-EE), Miren Nekane Oraa (AEI), eta Manuela Ruiz Vivanco (Elkarrekin Podemos-IU-Aliantza Berdea) dira beste alkategaiak.

BARRIKA

# Auzoak lotu guran

**Udalerri sakabanatua den heinean, tokiko auzoak eta herriguneak elkar lotzeko beharra nabarmentzen dute hautagaitzek. Hala ere, hori egiteko moduak ezberdinak dira batetik bestera.**

2019ko emaitzak



**L**egegintzaldi bitan alkate izandako Roberto Muñozek lekukoa pasa dio Miren Itziar Unibaso jeltzaleari. EH Bildun ere aldaketak izan dituzte, eta gaur egun zinegotzia den Xabier Errementeria izango da koalizio abertzalearen alkategaia, aurreko aldiko Miren Tubeten orde. Aitzitik, Independenteen taldeak zerrendaburua errepikatuko du. PP, PSE-EE eta Berdeak Equo taldeek ere hautagaitzak aurkeztu dituzte, baina, orain arteko datuak ikusita, ez da espero ordezkapenik lortzea oraingoan.

Hautagai guztiek nabarmendu dute udalerriko auzoak konektatzeko beharra eta, bide batez, mugikortasun-eredua garaietara egokitzea, autoen nagusitasuna baztertuta. Hala ere, hori egiteko proposamenak ezberdinak dira batetik bestera. Era berean, hirigintza-ereduak eta etxebizitzak ere leku nabarmena du hautagaien programan, besteak beste.

Alkategaiak



**\* OHARRA:** Gaur egun Udalean ordezkari duden taldeen hautagaiak baino ez ditugu ekarri hona.

Horiez gainera, Maria Eugenia Guezuraga (PSE-EE), Diego Anderrez (Equo) eta Luis Enrique Echave-Susaeta (PP) dira alkategaiak.

# XXIII UMORE AZOKA

FERIA DE ARTISTAS  
CALLEJEROS DE

# LEIOA

MAIATZAK 18, 19,  
20, 21 MAYO 2023







# ETENA!

**Denborak eskuetatik ihes egiten digula sentiarazten digun gizarte «hiperproduktibista eta hiperkonektatuaren» aurrean, eteteko eskubidearen aldarrikapena egin gura du aurtengo Getxophotok. Horretarako, mundu azeleratua eta ikuspegi ez-emankorrak islatzen dituzten nazioarteko artisten lanak ekarriko ditu. «Denborak argazkigintzari egiten diona eta argazkiak denboraren esperientzia subjektiboari buruz kontaktzen diguna interesatzen zaigu», adierazi du Maria Ptqk komisarioak.**

TESTUA: ANDER ZARRAGA ARGAZKIAK: GETXOPHOTO





*Group of monks bringing the curse of death.* MITSUTOSHI HANAGA



*Aquí ninguém fala disso.* MAIDER JIMÉNEZ






*A vingança é uma espécie de justiça selvagem.* LUCAS BAMBOZZI



*Before It's Gone.* M'HAMMED KILITO




*Today, Something.* ARTURO SOTO







*Entre sueños la selva hace el eco de la canción de la anaconda ardiente.*  
TATIANA LÓPEZ



*The SIM project.* LIZ HINGLEY



*The Knifethrower.* HANNAH COLLINS





*Bunker.* JULIETA TARRABELLA



*Rápido REM.* MIGUEL LEACHE



# GETXO EZA GUTU

## TOPONIMIA IBILBIDEAK



APIRILAK 25 EKAINAK 19

**ROMO**



APIRILAK 27 EKAINAK 13

**PORTU ZAHARRA**



**ALGORTA**

MAIATZAK 30

(SATISTEGI~USATEGI)

MAIATZAK 3

(SATISTEGI~ALANGO)



MAIATZAK 9 EKAINAK 15  
**ANDRAMARI**

(LABURRA)



MAIATZAK 16 EKAINAK 27

**ANDRAMARI**

(BIZIKLETAZ)



MAIATZAK 22 EKAINAK 7

**AREETA**



MAIATZAK 25 EKAINAK 21

**NEGURI**



EKAINAK 1

**FADURA**

(HEZEGUNEAK BASERRI AUZOA)



EKAINAK 5

**PUNTA BEGOÑA**

Hemen  
Informazio Gehiago



Izena emateko:  
627 899 320 (Bulego orduetan)  
[getxo.toponimia@gmail.com](mailto:getxo.toponimia@gmail.com)









**Maria Ptqk** Kultur ikerlaria eta Getxophotoko komisarioa

# «Irudiak ez daude isolatuta, multzoan lan egiten dute»

**Maria Ptqk komisarioak nahiago du bere lana ontzailearena bezala deskribatzea. Atzerrian hainbat proiektu burutu ostean, Getxophoto jaialdia kudeatuko du aurten. Jon Uriarteren lekukoa hartu du berak, baina jarraikortasuna modu naturalean eman dela kontatu digu. Aurtengo leloa «Etena!» da, eta horren esanahiaren eta ekainaren 1etik 25era datorrenari buruz galdetu diogu.**

TESTUAK: ANDER ZARRAGA ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

**Gaur egungo bizi-erritmoari «etena» egitea aldarrikatu gura duzue aurtengo Getxophoton, zergatik?** Gelditzeko eskubide hori aldarrikatu gura dugu, baina ulertzea emanez ez dela soilik kontu indibidual bat, gauza kolektibo bat ere badelako. Gelditu ezin garenen sentsazio horrek irakurketa sozial bat ere du; izan ere, hainbat egitura tekniko eta kultural daude hiperproduktibitate-egoera horretan egonazten gaituztenak. Gelditzea eta oporretan joatea pribilegio bat ere badela adieraziko dugu; izan ere, horretan pentsatzen jartzen garenean, askori itsasoa dator kigu burura, baina itsasoa hainbat pertsonarentzat heriotza ere suposatzen du: Europaren hegoaldeko mugetara heldu guran urtero hiltzen diren hainbat pertsonen heriotza ere badelako itsasoa. Horregatik, besteak beste, itsasoaren zerumugaz berba egiten duten Esmeralda Kosmatopoulos artista grekoaren piezak egongo dira. Eten hori aldarrikatu gura dugu, baina hausnarketarako tartea alboratu gabe, atsedean hori hartu ahal izateko lan egin edo sufritzen ari diren horien ikuspegi ahaztu gabe. Oporretan goazenean, zenbat jende ari da lanean atsedean har dezagun? Orduan, etena ikuspegi politikoago eta kolektiboago batetik ere islatu gura izan dugu.

**Horregaz erlazioa du gaur egun sare sozialetatik jasotzen dugun irudi eta informazio**



## Aizto-jaurtizailea

«Hannah Collinsek irudi bakarra izango du Getxophoton, baina uste dut irudi horrek aurtengo ideia oso ondo kondentsatzen duela: etena egiteak ez du esan nahi ez egotea, Collinsek irudiko aizto-jaurtizailea bezala, super-egoteko eten nahia baizik. Deskonektatu gura dugu, baina beste modu batera konektatu ahal izateko»

**andanak ere. Nola eragiten dio horrek argazkigintzari?** Gaur egun, argazkigintza toki hegemonikoan egon arren, ez da beti horrela izan, XIX. mendean, argazkigintza margolaritzaren konpetentzia izen baitzen. Orain, sortzen ari diren arte forma berriei dagokienez, argazkilaritzak jarrera kontserbadoreagoak bereganatu ditu. Beraz, nik uste dut argazkigintza tradizionala irudiak sortzeko eredu teknologiko berriak elkar-biziko dela, margolaritzagaz egin zuen bezala. Beste kontu bat da adimen artifizialek orokorrean dakartzaten erronkak, ez sormenaren alorrean bakarrik, baita herritarren zaintzan edo komunikabideen kontrolari dagokionean ere. Erronka asko ikusten ditut nik hor.

**Zer kontatu ahal diguzu egitarauaren inguruan?** Hasteko, aipagarria da Gwendolyne Algotako diskoteka mitikoaren 50. urteurrena izango litzatekeela aurten. Jendeari argazkiak bidaltzeko eskatu diogu eta hainbat jaialdi eta gertaeretako irudi asko eta asko jaso ditugu. Gure memoria kolektiboaren parte da hori eta Kasinoan jarriko ditugu irudiok ikusgai. Horrez gain, Begoñako galerietan M'hammed Kilitok oasien desagerpenari buruz egin duen lana erakutsiko dugu. Ez dira faltako argazkigintzaren nazioarteko lehen lerroko protagonistak dakartzaten Itxialdia hitzaldiak ere. Halaber, Pausometroan jendeak pausa

aldarrikatu beharko du eta dagokion boluena lortzean Pausometroak argazki bat aterako die; helburua da barruan dugun ezinegon hori askatzea eta gelditu gura dugula aldarrikatzea. Gelati Gelatik ere bi zaporeko izozkiak egingo dizkigu: bata, publiko guztientzako bitaminikoa izango da, eta, bestea, narkotikoa deitzen duguna, siestarako modukoa izango da, baina ez dakigu zein izango da bere osagai sekretua, kar kar kar.

**Egin dituzun aurreko komisario edo ontzailan lanetan feminismoak, teknologiak, ingurumenak eta zientziak paper garrantzitsua izan dute. Getxophoton ere hori ikusiko dugu?** Bai, ingurumenak bere lekua izango du bai ala bai. Nire lanean hain sartuta dauden gaiak dira zerikusi gehiago dutela begiradagaz gaiagaz baino. Produktibitateari jarri beharreko mugetatik abiatuta, ikuspegi ekologistatik erreparatzen diot etenaren behar horri. Gure atsedean beharizaneia eta munduaren erreproduzio-zikloei entzungor egitea elkarregaz doaz, eta lurak sortzeko duen gaitasuna bortxatu dugu, ziklo natural horiek azkartzeko eta estraktibismoa mugaraino eramateko. Gure gorputzak hori bera egiten dugu, behar bezala atsedetik eta guretzat denborarik hartzen ez dugunean. Logika bera da kasu bietan. Halaber, produktibitatearen beste aurpegia ugalketa da, horrek sostengatzen duelako produktibismo bortitz hori; beraz, hor ere feminismoaren ikuspegia txerutzen da. Hala ere, etetean, ezer ez egitea pentsatzen dugunean, kontziente izan behar gara norbaitek prestatu behar digula jatekoa, oporretan goazenean ere zenbat jendek egiten du lan guk atsedean hartu ahal izateko? Beraz, hor ere pribilegioen ikuspegia antzematen da, izan ere, nor joan daiteke oporretan? Beraz, hausnarketa hori ere txertatu gura izan dugu aurtengo Getxophoton.



Maria

### Ontze-lanak

**«Getxophoto niretzat kultur erreferente bat da. Urte askoz jarraitu dut, eta atzean egotea izugarria da; asko disfrutatzen ari naiz ontze-lanak egiten»**

**Komisarioaren lana beti lotu izan da artearen inguruko lan intelektual batez, aldiz, zuk artea naturagaz eta lurragaz dugun harremana aldarrikatzeko tresna bezala ere baliatzen duzu. Ikuspegi berri bat al da?** Arteak bere buruari buruz dio gaurkotasuna irakurtzeko tresna dela, eta niretzat ingurumenaren kolapsoa gaur egun denon ahotan dagoen gaia da. Artea, ezagutzak sortzeko gune bat den heinean, ezin daiteke horretatik at geratu; izan ere, munduan dugun tokia berpentsatzeko ezagutzak behar ditugu.

**AINGARA**  
BORDATU PERTSONALIZATUAK ZURE GUSTORA...

**Denda berria!**  
Ibaiondo, 13 48930 Erromo · GETXO

944 038 953 • [www.bordadosaingara.com](http://www.bordadosaingara.com)

*Iñaki Bitxitegia*

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

**Villamonte plaza 3**  
94 430 23 45

**Algorta**

**Telletxe 1**  
94 460 27 41





Ptqk kultur ikerlari eta ekoizleak Jon Uriarteren lekukoa hartu du Getxophotoko komisario-lanetan.

**Nola irudikatuko duzue etenaren aldarrikapen hori Getxophotoko erakusketa eta jardueretan?** Niri asko arduratzen nau kontaktaren inguruan lan egiteak, eta horretan irudiak ez daude isolatuta, multzoan lan egiten dute eta proiektu bakoitzak kontaktaren ikuspegi batean sakontzen du. Nik gaiak dimentsio edo aurpegi askotako figura baten moduan irudikatzen ditut, eta guztiek osatzen dute kontaketa hori. Horrez gain, lanek beraien artean osatzen duten harremana ere interesatzen zait, baita erakusketa gune ba-

## Kultur ontzailea eta ikerlaria

**Maria Ptqk (Bilbo, 1976) 2000 urtetik darama kulturaren arloan lanean. Ikerketa Artistikoko doktoregoa du eta Zuzenbideko eta Ekonomiako lizentziatua da, eta, besteak beste, Madril, Paris edo Bartzelonan aritu da proiektuak kudeatzen eta aholkulari-lanetan.**

koitzean duten eragina ere. Horretarako, artistak aukeratzea puzzle bat egitea bezalakoa da, beraien artean ere osatzen doazelako eta horrela sortzen delako hainbat ikuspegi dituen kontakizun hori.

**Erabiliko diren guneei dagokionez, Algortako merkatuak protagonismo handia izango du, zergatik?** Elikagaiak munduari erreparatzeko izugarritzko bektorea dira. Zentzu horretan, supermerkatu batera joatea edo horrelako merkatu batean edo herriko komertzio txikietan kontsumitzea ekintza politikoa bat da, zure hurbileko inguruagaz lotzen zaituelako. Kontsumitzeko beste modu bat da, baina lehengora bueltatuz, mundu guztiak ezin dezake denbora hartu etenaldi hori egin eta merkatura joateko. Horrelako guneak aldarrikatzea eta bizi-kalitateagaz lotzea da helburua, bizitzea merezi duen bizi bat izatea, hain justu. Beraz, edizio honetako erdigunea Algortako merkatua izatea niretzat asmoen adierazpen argi bat da. Halaber, gune berriak ere bilatu ditugu, kasurako, Ereagako igogailua eta oraindik baieztatzeko dauden beste batzuk.

**Nolakoa izan da Jon Uriarteren lekukoa hartzea?** Ederra izan da. Aspalditik Getxophotok daukan irudiaren inguruko hausnarketari esker, argazkilaritza-jaialdi soil bat baino gehiago izatera eraman duelako. Irudiaren bitartez gaurkotasuna duten gaiei buruz hausnarketa proposatzen du, eta ni ildo horretan oso ondo txertatzen naiz, artea eta kultura horrela ulertzen ditudalako. Gainera, Uriartegaz oso ondo konektatzen dut, bioi teknologiak interes handia pizten digulako, beraz, jarraitutasun hori oso modu naturalean eman da, eta hori Getxophotoren lorpena ere bada. Halaber, Uriartek ere gugaz lanean jarraitzen du, izan ere, aurtengo artista eta piezetako batzuk berak aukeratu ditu. ◀

# GETXOPHOTO 2023

## EKAINA 01-25

### ETENA! PAUSA!

NAZIOARTEKO IRUDI JAIALDIA • WWW.GETXOPHOTO.COM

GETXOPHOTO

ANTOLATZAILEA:

BEGIHANDI

BABESLE NAGUSIA:

Getxo


BABESLEAK:

ERIKO JAIALDIAZKO SOKIENO VASCO

Bizkaia bbkE

LAGUNTZAILEA:

hiruka





**Iñaki Zubizarreta** Eskola jazarpenaz aritzen den hizlaria

# «Eskola jazarpena bere horretan erakutsi behar da»

**Bere fisikoari erreparatuta, inork ez luke esango Iñaki Zubizarreta (Getxo, 1972) saskibaloi jokalaria ohiak txikitan eskola jazarpenik pairatu zuenik. Aitzitik, hala da, eta, bere istorioa ezagutu daiteke Paniniren eskutik kaleratutako *Subnormal* eleberri grafikoaren bidez.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA

**Z**ubizarretak argi zuen zein izango zen bere gaztaroa ilustratzen zuen komikiaren titulua: *Subnormal*; «urteetan zehar hitz hori erabili zuten ni txikitzeko». Hala, Zubizarretaren helburua da eskola jazarpenaren errealtatea «apaingarririk gabe» erakustea; izan ere, bere buruaz beste egiteko zorian egon zen txikitan jasotako indarkeriaren eraginez.

**Nola erabaki zenuen eskola jazarpenagaz bizi duzun esperientzia publikoki kontatu gura zenuela?** Eskola jazarpenaren aurkako ekimenetan zebilen jendeagaz lan egiten hasi nintzen, eta, hasieratik, asmoak ekintzak baino nabariagoak ziren. Inflexio-puntua Javier Perez Aznar psikologoa ezagutu nuenean izan zen; berak motibatu ninduen nire istorioa publikoki kontatzera, eta sartuta nengoen putzutik ateratzen lagundu zidan. Beste pertsona oso garrantzitsu bat Alcalá de Henares (Madril) ikastetxeko zuzendaria den Jesus Pernas da, izan ere, berak eman dizkit jazarpenetik ateratzeko gakoak. Bi pertsona horiek

## Hitz-ezpata

**«Gogoan dut eman nuen hitzaldi batean 10 urte inguruko ume batek esan zidana. Azaldu zidan berarentzat jazarpena ezpata bat zela, iraintzen zaituzten bakoitzean zorrotik atera eta barrutik sartzen eta txikitzen hasten dizun hitz-ezpata»**

bitzita aldatu didate, eta, gaur egun, oso kolaboratzaile estuak dira. Haiei esker eman dut nire istorioa kontatzeko urratsa. Beraz, erabakia progresiboa izan da.

**Zelako eragina izan du txikitan bizitako jazarpenak zure oraingo bizitzan?** Gu ez gara gure istorioa, baizik eta istorio horren interpretazioaren arabekoak gara. Gerta dakidakeen guztiaren barruan, beti daude bi irakurketa: bata, positiboa, eta bestea, negatiboa. Hurbilegitik ezagutzen dut zer den bidean okertzea eta galtzea, beraz, txikitan bizitakoak eragin handia izan du nigan. Uste dut gakoa dela ez tematzea zergatietan, baizik eta zentzua aurkitzea zertarako gertatu zaidan hori guztia.

Honen harira, gogoan dut eman nuen hitzaldi batean 10 urte inguruko haur batek esan zidana. Azaldu zidan berarentzat jazarpena ezpata bat zela, iraintzen zaituzten eta gauzak esaten dizkizuten bakoitzean zorrotik atera eta barrutik sartzen eta txikitzen hasten dizun hitz-ezpata. Pentsa nolako aurpegia ge-



## KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



ratu zitzaigun denoi hain gaztea zen ume batek hori esan zigunean.

**Eskola jazarpena bizitzen ari zinenean laguntza eskatu ahal izan zenuen?** Eskolan, familian, lanean edota bizitzako edozein beste eremutan jazarpena egiten duen jendeak zure barne-hizkera lapurtzen dizu. Beldurrean sartzen zaituzte, blokeatu egiten zara, eta ez duzu hitz egiten. Oso zaila da laguntza eskatzea, eta, egiten duzunean, agian, garaiz artatuko ez zaituen jendea dago. Horregatik, haurrakaz beti esaten dut begiakaz entzun behar dela: egiten ari zaren guztia utzi eta ahal duzun arreta guztia jarri behar duzu haurraren gain, batzuetan hori egiten ez bada beranduegi izaten baita.

**Nolakoa izan zen *Subnormal* eleberri grafikoaren sormen-prozesua?** Nire baitan aldaketa handia igarri dut obra hori egin eta gero. Prozesu horretan nire beldurrei aurre egin behar izan nien eta nire barneko zati batzuk oraindino landu gabe nituen. Zorionez, niretzako terapia bat izan da obra hori sortzea, hain gaizki tratatu nauen jende guztiarekiko atsekabea eta gorroto puntu hori kentzen lagundu didalako. Prozesua oso gogorra izan arren, uste dut beharrezkoa dela eskola jazarpena bere horretan erakustea.

Eleberri grafikoan ateratzen den guztia benetakoa da, telefono mugikorraren elementua izan ezik, garai hartan ez nuelako halakorik. Era horretan, inolako apaingarririk gabe erakusten dut zer den eskola eremuan ematen den indarkeria hori. Ez zait gustatzen jendeak esaten duenean jazarpena haurren kontua dela, izan ere, edozein indarkeria mota gertatzeko hiru premisa bete behar dira: lehena, ez dela kontuan hartzen; bigarrena, justifikatzen dela; eta, hirugarrena, minimizatu egiten dela. Bestalde, komikiak nire Instagram edota



Eskola jazarpenari buruzko hitzaldiak ematen ditu Zubizarretak. © IÑAKI ZUBIZARRETA

### Haurren kontua

**«Ez zait gustatzen jendeak esaten duenean jazarpena haurren kontua dela, izan ere, edozein indarkeria mota gertatzeko hiru premisa bete behar dira: lehena, ez dela kontuan hartzen; bigarrena, justifikatzen dela; eta, hirugarrena, minimizatu egiten dela»**

Wikipedia profiletik eskura daitekeen gida didaktiko bat ere badu, edukiak zuzenean landu ahal izateko. Euskaraz egoteaz gain, galegoz, katalanez eta gaztelaniaz eskuragarri dago.

**Zer gomendio emango zenioke eskola jazarpena pairatzen dabilen ume bati?** Isiltasunagaz apurtzeko esango nioke, baina ez soilik berari, baizik eta jazarle pasiboiei ere. Izan ere, jazarpenaren aurrean isilik geratzen diren pertsonak konplize bihurtzen dira. Duela 40 urte gertatzen zen, eta gaur egun ere txantilo berdinak errepikatzen ditugu; ez dugu ezer aurreratu. Teknologia-mailan beldurra ematen duen erritmoan aldatu da mundua, baina maila-emozionalean erabat zaharkituta dauden kodeakaz ainguratuta eta programatuta jarraitzen dugu.



[www.anderdeuna.eus](http://www.anderdeuna.eus)



INTERESA IZANEZ GERO,  
BETE HURRENGO GALDETEGIA  
ETA HARREMANETAN JARRIKO  
GARA ZUEKIN.

## HH1eko matrikulazioa

URTE OSOAN  
ZABALIK



**ander deuna**  
IKASTOLA

*Biharko mundua  
gaur eta hemen*



**Ibon Larregi Astigarraga** Lanbide Heziketako irakaslea

# «Klaseak euskaraz ematea ohore bat da niretzako»

**Euskarazko ziklo bi ematen ditu Ibon Larregi Astigarragak Bilboko Harrobi ikastolan: Marketina eta Publizitatea; eta 3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarregileak. Izatez, elgoibartarra, egun, Gorlizen bizi da, eta geugaz partekatu du nolakoa den bere egunerokotasuna irakasle gisa.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA

**«Gure artean, euskaraz hobeto» da zuon Lanbide Heziketako leloa. Nolakoa da goi-mailako ikasketetako eskolak euskaraz ematea?** Ikastola Bilbon kokatuta egon arren, Bizkaia osotik datozkigu ikasleak, baita Gipuzkoa zein Arabatik ere. Beraz, euskalki ezberdinak entzuten ditugu eta haiek dakarten maila ere ezberdina izaten da. Ohore bat da niretzako klaseak euskaraz eman ahal izatea. Euskaraz bititza hautu pertsonal bat bada ere, askotan ez dago zure lana zuk nahi duzun hizkuntzan burutzeko aukerarik eta, horregatik, zorionekoa sentitzen naiz.

**Ikasleek euskararekiko jokabide positiboa erakusten dute?** Esan bezala, ez dugu ikasle eredu bakarra, beraz, era guztietako jarrerak ikus ditzakegu gelan. Baina Lanbide Heziketa ikasteko momentuan ikasleek D eredu aukeratu izana abiapuntu positiboa deritzot.

**Hala ez denean, nola kudeatzen duzue?** Irakasleari euskaraz zuzentzea eta lanak euskaraz egitea araua da gurean. Ez dugu onartzen



Bilboko Harrobi ikastolan ematen ditu klaseak Larregik. HODEI TORRES

## Hautua

**«Euskaraz bititza hautu pertsonal bat bada ere, askotan ez dago zure lana zuk nahi duzun hizkuntzan burutzeko aukerarik»**

bestelakorik. Adibidez, ikasleren bat gazte-eraz zuzenduko balitzaigu, galdera euskaraz egiteko eskatuko genioke horri, eta, lanak gazte-eraz egitekotan ere, euskaratzeko eskatuko litzaioke.

**Bi ziklo irakasten dituzu: Marketina eta Publizitatea eta 3D Animazioak, Jokoak eta Ingurune Elkarregileak. Zaila izan da euskaratik eduki horiek lantzea?** Bai, adibidez,



hitz-teknikoengatik, baina ez gaztelaniaren indarragatik soilik. Gure zikloetako edukien kasuan askoz indartsuagoa da ingelesaren pisa. Gaur egun, termino asko ingelesetik datoz, eta nahiz eta euskarazko itzulpen jatorra eduki, anglizismoak erabiltzeko joera dugu.

**Nolakoa dela esango zenuke euskarazko enpresa mundua? Zeintzuk dira bere indarguneak eta ahulguneak?** Ahulgunea da orain arte presentzia handia izan duela gaztelaniak lan munduan. Indargunea, berriz, oso aro aldakorrean bizi garela eta, lanbide berriak jaiotzen ari diren heinean, horietan hasieratik euskaraz aritzeko aukera dugula. Aukera asko dakusat etorkizun laburrean; sorkuntza eta formakuntza alorretan indarra jarri beharra dago bestalde.

**Nolakoa da praktiken prozesua?** Gure lehen aukera euskal enpresetara bideratzea bada ere, egoera ezberdinengatik ez dugu soilik enpresa euskaldunekin lan egiten. Prozesua enpresa interesgarri posibleen bilaketarekin hasten da. Enpresa gehienek ere, behin praktikagileekin lan egindakoan, esperientzia aberasgarria medio errepikatu nahi izaten dute.

**Euskaraz lanean**  
«Euskarazko enpresa munduak duen ahulgunea da orain arte presentzia handia izan duela gaztelaniak. Indargunea, berriz, oso aro aldakorrean bizi garela eta, lanbide berriak jaiotzen ari diren heinean, horietan hasieratik euskaraz aritzeko aukera dugula»

**Beldurrak**  
«Lan munduan haien tokia topatzea izaten da ikasleen beldurrik handiena. Ahal bada, gustuko duten alorrean lan egin nahi dute, noski»

**Zeintzuk izan ohi dira ikasleen beldurrik handienak etorkizunari begira?** Lan munduan haien tokia topatzea izaten da ikasleen beldurrik handiena. Izan ere, ahal izatekotan, gustuko duten alorrean lan egin nahi dute, noski. Hala ere, batzuetan, ikasketekin jarraitzeko gomendatzen diegu ikasleei interes konkretuak nabaritzen dizkiegunean. Beraz, haiek laguntzeko ikasketak osatzeko berezitasunen bat egiteko bideak erakusten dizkiegu. Bestalde, ekintzailatza ere sustatzen dugu.

**Lanbide Heziketek urte luzez ospe «txarra» eduki dute gure gizartean: unibertsitate eta karrerak ziruditen beti aukerarik onenak. Zer iritzi diozu horri?** Diozun bezala, Lanbide Heziketa gutxietsia izan da sarri. Baina gizarteak langile profesionalen behar izan nabaria du, geroz eta handiagoa esango nuke. Halaber, ikasketa esparru bakoitzak behar izan ezberdinei erantzuten die, eta osagarriak dira. Ez da arraroa gurean Lanbide Heziketatik unibertsitateerako bidea egitea, baina unibertsitate ikasketak eginiko ikasleak ere badatozkigu gure ikastolaren espezializazio mailak erakarrita.



**2023**  
**UDAKO EUSKARA IKASTAROAK**

Informazio gehiago

**UDAKO IKASTARO TRINKOAK  
ETA BARNETEGIAK**

A1, A2, B1, B2 eta C1 mailak

**MATRIKULA EPEA**

**UZTAILEKO IKASTAROAK** - Ekain osoan

**IRAILEKO IKASTAROAK:**

ekain osoan eta uztailaren 30era arte

**23/24 IKASTURTERAKO**

**AURREMATRIKULA ZABALIK!**

Informazio gehiago nahi baduzu:

Leioa: 944 64 60 63 | lamia@aek.eus

Getxo: 944 304 734 | lauaxeta@aek.eus

Plentzia: 946 77 36 07 | jentilbaso@aek.eus

Gorliz: 946 77 36 46 | jentilbaso@aek.eus

☎ 688 746 776

[www.facebook.com/UribeKostako-AEK](https://www.facebook.com/UribeKostako-AEK)

[www.aek.eus/blogak/uribekosta/](http://www.aek.eus/blogak/uribekosta/)

673 200 100 / 946 464 000

[www.aek.eus](http://www.aek.eus)







**POLITEKNIKA  
TXORIERRI**

# hegan

egiteko aukerak 

Batxilergoa eta  
Lanbide Heziketa  
Bachillerato y  
Formación Profesional



**Eman izena!**  
[www.politeknikatxorierri.eus](http://www.politeknikatxorierri.eus)





*Zure lanbidea aukeratu!  
i Tu futuro hoy!*

Lanbide-Heziketako Ikastetxe Integratua



**Fadura**  
Ikastetxea

Centro Integrado de Formación Profesional



IKASTURTEA

2023-2024

ERDI ETA GOI-MAILAKO  
**HEZIKETA ZIKLOAK**  
CICLOS FORMATIVOS  
GRADO MEDIO Y SUPERIOR

**Aurrematrikula maiatzaren 8tik 26ra aurretiko zitarekin**  
Prematrícula del 8 de mayo al 26 de mayo con cita previa

**ERDI- MAILAKO HEZIKETA -ZIKLOAK**

- Telekomunikazio-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdiak

**GOI-MAILAKO HEZIKETA-ZIKLOAK**

- Automatizazio eta robotika industrialak
- Fabrikazio mekanikorako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntza

**ZATUZ ETA INFORMA ZAITEZ!** ¡VEN E INFÓRMATE!



**www.fadura.eus**  
**944 06 90 00**  
GETXO BIZKAIA



**Nerea Mendizabal** Komunikazio Ez Bortitzeko hezitzailea

# «Enpatia eta asertibotasuna lantzea aberasgarria da»

**Marshall Rosenbergek garatutako Komunikazio Ez Bortitza (KEB) izeneko ereduan aditua da Nerea Mendizabal, eta helburua da pertsona biren arteko konexioa ahalik eta onena lortzea, alde bien ongizatea bermatzeko. Horren nondik norakoetan sakontzeko batu gara Mendizabalegatz.**

IKER RINCON MORENO

**P**sikopedagogo eta Komunikazio Ez Bortitzean aditua da Nerea Mendizabal (Zestoa, 1976). Ikastetxeetan, irakasleak eta gurasoak aritu da urteotan eredu horregaz lanean, eta hainbat ikastaro, saio eta hitzaldi eman ditu gaiaren harira, baita gurean ere.

**Zer da zehazki Komunikazio Ez Bortitza (KEB)?** Hurbiltasuna sortzen duen guztia sartuko dugu paradigma honetan. Ez da indarkeria ez jartzea, baizik eta hurbiltasuna eta erakarpina sortzea. KEBak bilatzen du kalitate handiko konexioa sortuz guztion beharrak ikusi eta zaintzea. Hori horrela izanik, denok izango dugu irabazi edo aberastu izanaren sentsazioa.

**Zer baliabide daude horrek dituen helburuak lortzeko?** Norberari gertatzen ari zaiguna zintzotasunez adierazteko ahalmena eta besteari enpatiaz entzuteko gaitasuna eskatzen ditu, izan ditzakegun hitz edo ekintzetatik haratago. Bi gaitasun horietako bakoitzak lau osagai

**«Nire bizitza pertsonalerako eta profesionalerako sendotasun gehiago eskainiko zizkidaten lanabesen bilaketan, Marshall Rosenbergen Komunikazio Ez Bortitza (KEB) topatu nuen duela 17 urte»**

**«Eskolak espazio seguruak izateko eta autoritate rol osasuntsu batekin ikasle bakoitzak bere ikasketa-prozesu esanguratsu bat lortzeko lanketa sakona behar dugula iruditzen zait»**

ditu: egoeraren behaketa, pizten diren sentimenduak ezagutzea, ditugun beharrak identifikatzea eta eskaera egitea (beharrak asetzen lagunduko dizkidan ekintza konkrituak).

Zintzotasunez adierazteko edo enpatiaz entzuteko gai izateko ezagutu beharreko piezarik garrantzitsuenak ase nahian gabiltzan beharrak dira. Gizaki guztiontzat unibertsalak diren balore, grina edo aspektu garrantzitsuak edonor hazi eta loratzeko beharrezkoak ditugun baldintza ezinbestekoak dira. Horiek dira gure ekintzak egiten ditugun moduan egitearen arrazoi edo motorra. Marshalllek zioen moduan, gizakiok ez dugu geure premiak asetzen saiatzea besterik egiten, nahiz eta erabiltzen ditugun modu edo estrategiak, batzuetan, traktetsak, kaltegarriak edo tragikoak izan.

**Zer da orduan komunikazio bortitza?** Paradigma honen barruan, deserosotasun, mina, urrutiratzea edo defentsan jartzera eramaten gaituen edozein elementuri bortizkeria deritzogu. Eta hori sozialki ulertzen dugun irain, eraso edo jotzea baino haratago doa.

ONGI ETORRI  
**FANFEST**

IBAIZABAL ★ BATXILERGO BERRIA



Hau da, bortizkeria lirateke epaiak, etiketak (ongia eta gaizkia, errua eta, beraz, merezitako zigorrak edo sariak), exijentziak («Egin beharko luke/nuke, ez badu egiten...»), arrazoia eduki nahi izatea, kuestionatzea, abisuak eman edo mehatxatzea, konparatzea, aholkuak ematea eskatzen ez zaigunean... Horrelako elementu sotilak aurkitzeak edo eza-gutzeak argitasuna ematen digu, batzuetan komentario txiki batek norbait itxi edo defentsan jartzea ekartzen baitu. Sarritan ez dugu ulertzen zergatik jarri den horrela, eta, ondorioz, gehiago haserretzera eramaten gaitu.

**Nola landu genezake Komunikazio Ez Bortitza eskola barruan, umeakaz?** Hezkuntza sistema eraikita dagoen moduan, estrukturalki gauza asko daude bortizkeriaren barruan bizi ditzakegunak. Ikastetxeetan azken urteetan aldaketa batzuk ematen ari badira ere, denok dakigu estruktura eta sistema sozialak eraldatzea ez dela goizetik gauera egiten den zerbait eta, beraz, oraindik bide luzea dugu aurretik.

Bide hori egiten ari garen bitartean, nire indarrak helduekin jartzen ditut, irakasleak egoera honetan lantzeko dutena ere landuaz. Hezitzaileek dituzten baldintzetan lan egitea ez da batere erraza, eta horiek dituzten beharrak, beraien adimen emozionala, norbere gatazketan kudeaketan, orokorrean, oso baldintzatu-ta daude. Sarritan, ikasleei eskatzen dizkiegun gauza asko guk geuk ikasteko ditugunak dira.

Eta, azkenik, ikasleekin ere egunerokotasunean erlazioan eta bizipenetan murgilduta gaudenez, horiekin bizitzarako baliabideak eskuratzen jarri gaitezke. Horretarako idatzi nuen *Jirafa hizkuntza, ikasleekin egiteko proposamenak* liburua. Bertan, Komunikazio Ez Bortitza abiapuntu hartuta, espazio seguruak eraikitzeko, ikaskuntza esanguratsua bermatzeko eta errespetuzko elkarbizitzarako dinamika eta proposamenak aurkezten ditut.



KEB edozein alorrean aplika daitekeela dio adituak. NEREA MENDIZABAL

«**Komunikazio eraginkor batek norbere barruan eta besteengan gertatzen denaz jabetzea eskatzen du eta, orokorrean, gizakiok oso deskonektatuta bizi garela esango nuke**»

«**Marshall Rosenbergek gure asmoa zein den egiaztatzeko moduan zuen ondorengoa galdetuz: "Zertan jolastu nahi duzu, arrazoia edukitzen edo zoriontsu izaten?"**»

**Eta etxean?** Etxean ere, bide berdinetik. Neure esperientzia pertsonalean eta guraso eskoletan behin eta berriz konfirmatzen dut seme-alabekin bizitzen ditugun egoerak aukera bikainak direla gu ere beraiekin hazten eta ikasten joateko. Gure begirada edo egoera ikusteko eta interpretatzeko modua garbitzen dugunean, sarritan, seme-alabekin esku hartzeko modua asko aldatzen da. Eta beste batzuetan, ezer asko egin gabe ere bideratzen joaten zaizkigu.

Etxean sarritan kolaborazioa lortu nahi izaten dugu. Orokorrean, inori ez zaigu kolaboratzeko gogoia pizten aurrean dugunak, gure hobe beharrez izanda ere, exijentzia, kritika, mehatxu edo erru bidez gure jokaera edo jarrerak aldarazi nahi dizkigunean. Horregatik, enpatia, adierazpen zintzo eta muga ezartzeko artea praktikatzeko eta fintzea eskatzen du, modu firme eta goxoan, ez bortitzean, jartzea ere posible baita.

**SAN NIKOLAS**  
IKASTOLA

**URTEBETEKO**  
**IZEN EMATEA ZABALIK**

**ERDIGUNEAN ZU**

**SANIKOLAS.EUS**  
Areneazpi Kalea, 15 (48991)  
Getxo, Bizkaia



# Ezohiko akademia, Urdulizen ere

**Bost urte beteko dituen Real English akademiak beste eskola bat irekiko du datorren ikasturtean, Urdulizen. Maila guztiei begirako klaseak ematen dituzte.**

**A**lgorta erdi-erdian, Biotz Alai plazan lekututa dagoen ingeleseko akademia da Real English Getxo. Bertako jabe den Carlos Edward Rey-Surmanek dioenez, daborduko bost urte bete dituen bere proiektua «berezia» da, «ezohikoa eta berritzailea». Azaldu duenez, «Nagirik ematen ez duen ingelesa» lempean, hurrengo ikasturtean beste akademia bat zabalduko du, Urdulizen, Aita Gotzon kaleko 2 zenbakian.

Irakasleak azpimarratu duenez, 10 irakasleaz osatutako lantaldea dute, eta metodologia komunikatiboa darabilte, «non komunikazioa den irakaskuntzaren helburua». Arreta han-

**UDAN**  
**Uztailean,**  
**3-14 urteko**  
**umeentzako**  
**kanpamentuak**  
**egiten dituzte,**  
**askotariko**  
**jarduera**  
**egitekoak.**



10 irakasle dira, prestakuntza zabala dutenak eta hainbat jatorritakoak direnak.

dia jartzen diote ahozko adierazpenari, eta buru-belarri lantzen dute ahoskera, gramatika-arintasuna eta konfiantza. «Gure ikasleak ikastetxean indartzeko beharrezkoak diren gaitasun tradizionalak ere betetzen ditugu, eta azterketa ofizialak gainditu dituztenen ratio bikaina dugu, maila guztietan».

## GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA

**UDAKO IKASTARO TRINKOAK: UZTAILEAN ETA IRAILEAN**  
CURSOS INTENSIVOS DE VERANO EN JULIO Y SEPTIEMBRE

**Uztailean: maila guztiak: A1-A2-B1-B2-C1**

**Ekainaren 30etik uztailearen 21era** (80 eskola-ordu/egunero 5 ordu)

**Prezioa: 88 euro.**

*Matrikula zabalik: ekainaren 1etik 27ra arte.*

**Irailean: B1-B2-C1 mailak prestatzeko.**

**Irailaren 4tik irailaren 25era** (48 orduko ikastaroa/3 ordu)

**Prezioa: 52,8 euro.**

*Matrikula zabalik: ekainaren 1etik uztailearen 10era arte.*

**GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE eraikina)**

Santa Eugenia plaza, 1 (Romo) Getxo  
944 646 299 – euskaltegi@getxo.eus

[www.getxo.eus/eu/euskaltegi](http://www.getxo.eus/eu/euskaltegi)  
[www.udaleuskaltegiak.eus/eu](http://www.udaleuskaltegiak.eus/eu)







Sputnik Climbing Berango umeentzako aukera ugari eskaintzen ditu.

## Haurrentzako eskalada: nola sustatu autonomia eskalada-jardueren bidez

**A**utonomia funtsezkoa da haurren autoestimua indartzeko; horren bitartez segurtasuna irabazten dute, euren buruak zaintzen ikasten dute eta edozeri aurre egiteko eta gauza horiek gainditzeko gai sentitzen dira. Eta eskalada, inondik inora, norberaren burua gainditzeko gaitasunagatik nabarmentzen da.



Horretarako, eskola gidatuak, hala nola kanpamenduak edo eskalada eskola, aukera ezin hobekak dira txikien autonomia garatzeko eta handitzeko, egiten ikasten laguntzeko teknikari kualifikatuen gidaritzaz baitute. Izan ere, eskalatzeaz gain, ikastarootan eguneroko ekintzak ere egiten dituzte, hala nola jatea edo komunera joatea, baina ekintza horien erabateko autonomia erraztuz; horrela, ingurune seguru

eta familiarrean, autonomia hori garatzen duten keinu txikiak egiteko gai izaten dira. Horretarako, jardueren lehen egunean, instalazio guztiak erakusten dizkiegu, boulderringetik hasita La Cantinaraino, komunak eta jaten dugun txokoa barne. Horrela, mapa mentala egiten dute, zer egingo dugun argi izaten dute, eta, laguntza behar izanez gero, zein pertsonarengana jo dezaketen badakite. Ezinbestekoa da gune seguru bat sortzea, hizpide dugun autonomia hori garatu ahal izan dezaten. Euren ingurunea ezagutuko dute eta argi izango dute uneoro zein mugetan mugitzen diren.

Jolasak egiten ditugunean, elkarlanean aukerak ditugu, eta jarduera garatzen uzten dugu, esku hartuz baino gehiago behatuz. Gauzak «ondo» egiteko etengabe zuzentzen baditugu, haien adierazpen-modua murriztuko dugu, eta gure jarraibideen mende jarri.

Bertigo pixka bat ematen du egiten uzteak, baina, haiengan fidatuz gero, konturatu gara etxeko txikienek euren erara gozaten dutela, eta, oro har, ez dela gertatzen konponbiderik ez duen ezer. Eta gatazkarik badago, haiekaz konpontzen dugu, autoestimuan eta euren buruarekiko segurtasunean plus bat emanez.

### Bost jarduera umeakaz eskaladan aritzeko

- 1** **Haurren erronka:** Lehenengo kontaktua izateko modua, kirola eta trebetasun fisikoak nahasten dituena.
- 2** **Bataioa familian:** Zer hobeto seme-alabakaz loturak estutzeko batera jarduera berean parte hartzea baino?
- 3** **Kanpamenduak:** Umeak haien egun libreetan dibertitzeko modurik onena, kirola egin eta lagun berriak ezagutzen dituen bitartean.
- 4** **Eskolarik gabeko egunak:** Aukera ona da kanpamentuko egun guztietara ez baina egun solte batera joan gura dutenentzat.
- 5** **Eskalatuz Garatu Eskola:** Gure haurrentzako eta umeentzako eskolak. Adinaren arabera banatutako eta gidatutako eskolak, 4 urtetik aurrera.

Jardueren inguruko informazio gehiagorako:



### NON GAUDE?

**Erremerariena 6. 48640 Berango**  
(Berangoko metro-geltokitik bost minutura oinez, merkataritza-gune baten erdian. Gainera, apartakaleku pribatua dugu!)

Telefonoa: **747 454 264**  
Astelehenetik domekara: 10:00-22:00



## Lehen/Orain **Erandioko San Agustín eliza zaharra. 1950/1970 hamarkadan**



ITURRIA: MEMORIAS DE ERANDIO

- Etxebizitzaren prezioak mugatu
- Inbertsio gehiago eskola publikoan
- Anbulatorioetako hobekuntzak exijitu Osakidetzari
- Haurreskola bat, eguneko zentro bat eta nagusien etxe bat auzoko bakoitzean
- Udal plan bat osasun mentala zaintzeko eta bilatzen ez den bakardadeari aurre egiteko
- HAPO gelditu eta beste bat idatzi partaidetzaz
- Azkorri eta Andra Mari babestu
- Metroa lurperatu Algortan

# PUBLIKOTASUNAREN INDARRA

[www.lafuerzadelopublico.eus](http://www.lafuerzadelopublico.eus)

**XABIER BENITO**  
Getxoko alkategaia



**elkarrekin**  
Podemos  





**Sergey Grigorchuk**


**Nongoa**  
Kherson.

**Adina**  
50 urte.

**Zertan dabil**  
Lanean.

**Noiz heldu zinen?**  
2022ko apirilaren 12an.

**Noiz arte bertan?**  
Hemen geratu nahiko luke, betiko.



**Lurraldea**  
Ukraina.

**Azalera**  
603.550 km<sup>2</sup>.

**Hiriburua**  
Kiev.

**Biztanleria**  
41.167.335 (2022).

**Hizkuntzak**  
Ukrainera da hizkuntza ofiziala, baina errusiera asko erabiltzen da eta tartarrera ere entzun egin daiteke.

**Moneta**  
Grivna.

ANDER ZARRAGA ▶

**G**errak bultzatuta, duela urtebete Ukrainatik alde egin eta gurera etorri zen Sergey Grigorchuk, emaztea eta hiru seme-alabakaz batera. «Dena atzean utzi behar izan genuen, gure herria errusiarrek okupatu baitzuten eta ez genekielako zer gertatuko zen», gogoratzen du. Hala ere, bera eta bere familia oso zorionekoak direla esker-tzen du, Getxon bizitzeko aukera izan baitute: «Hondartza etxe ondoan daukagu!». Gaineratu duenez, hemengo jendea oso jatorra izan da berriekaz, eta seme-alabak bertako eskola batera doaz eta haiek ere oso pozik daude.

Grigorchuk xake-jokalari profesionala eta irakaslea da, eta, ikusmen-arazoak izan arren, hainbat txapelketatan parte hartu zuen Ukrainako talde nazionalan jokatzeko zuenean. Horri esker, 2013an, Espainiako txapelketa batean parte hartu zuen, eta, ordutik, gurera bizitzera etortzeko ametsa zuela aitortu du. Orain arte ez du baliabiderik izan guraria betetzeko, baina gerrari esker hemen geratzeko aukera du-

la dio. «Hala ere, egun batean gure herrialdera bueltatu nahiko genuke han utzi ditugun senide eta lagunak bisitatzeraz».

Xakeari dagokionez, gaur egun lehen baino gutxiago jokatzeko duen arren, Bilboko talde bateko kidea da, eta, besteak beste, Bizkaiko Txapelketan parte hartu du. Beragaz batera, Katerina bere alaba nagusia ere xake-maisua da, eta txapelketetan jokatzeko du, «baina orain ez du entrenatzeko astirik, lanbide bat ikasten ari baita; xaketik bizitzea oso zaila da».

Urteakaz, ikusteko ahalmena galtzen joan da Grigorchuk, baina itsuak diren jokalarientzako egokitutako xake-aulak daude, eta horiekaz moldatzen da: «Memoriaz jokatzeko dut, piezak non dauden irudikatzen dut, baina ez da beste munduko gaitasuna, entrenatzea da gako». Horrez gain, klaseak Internet bidez ematen ditu mundu osoan zehar, eta, bere gaztelera hobetzen duenean, Getxon eskola bat irekitzea gustatuko litzaiokeela dio. Gainera, horretarako euskara ere ikasi gura duela aurreratu du, «hemen biziko bagara bertako hizkuntza ikastea garrantzitsua dela iruditzen zait». ◀



Sopela Meñakoz Kultur Elkartearen 20. urteurrena

# Joareak astinduz ospatu dute urtemuga

Sopelan euskal kulturaren adierazgarria den talde bat bada, Meñakoz Kultur Elkartea da hori. Maiatzaren 6an, Sopelako dantzariak, panderojoleak, joaldunak, kantariak eta euskaldunon adierazgarriak diren beste hainbat jarduera bateratzen dituen taldearen bi hamarkadako ibilbidea handikiro ospatzeaz gain, Euskal Herriko joaldunak ere gonbidatu zituzten.



Udabarria  
bertsotan<sup>2023</sup>

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea

URDULIZ

Maiatzak 4

Kultur Etxean, 18:30ean

SOPELA

Maiatzak 18

Kurtzion, 18:30ean

[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)

Sarrerak: [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzailea:





Getxo San Isidro jaiak

# Udalerriko festei hasiera emateko prest

**Maiatzaren 11tik 15era bitartean, hamaika jarduera egongo dira gozagai Getxoko Andra Mari auzoan, tokiko jai-batzordeak antolatuta.**

**M**aiatzaren 15ean ospatzen da baserriarren zaindari San Isidroren ohorezko eguna. Hala, Getxo aldean ospakizunak izango dira hilaren 11tik 15era bitartean. Eguenean emango diete hasiera ospakizunei, Malakaten, 17:30eko umeentzako ikuskizunagaz. Ondoren, 20:00etan, txupina jaurti –barikuan berriro egingo dute pregoia irakurrita– eta jaiak hasiko dira. Hortik aurrera, lau egunez,

Jaietako egitaraua ikusteko:



adin eta gustu guztientzako hamaika jarduera egongo dira aukeran: herri-bazkariak, kirol erakustaldiak, umeentzako tailerrak, kalejirak, kontzertuak... Ez da aspertzeko tarterik egongo astelehenean, San Isidro Eguenean, jaien amaierako suziriak festari amaiera emango dion arte.

**XXVIII. HERRIEN JAIALDIA.** Urtero legez, auzoko euskal dantzen erreferente den Itxas Argia dantza-taldeak Valentziako eta Euskal Herriko folkloreak eta dantza-tradizionalen erakusketa ikusgarria egingo du zapatuan, hilaren 13an, kiroldegian. Horretarako hitzordua 21:00etan jarri dute. ◀

Publierreportajea **EH Bildu**

**Iker Casanova Alonso** EH Bilduko Bizkaiko ahaldun nagusirako hautagaia

## «Abangoardiako politika sozialak garatzeko gai izan behar dugu»

**I**ker Casanova (Barakaldo, 1972) Eusko Legebiltzarreko kidea da, eta Bizkaiko ahaldun nagusirako EH Bilduren hautagaia izango da hilaren 28ko hauteskundeetan.

**Bizkaian, EAJren garaipena aurreikusten da, alde handiz. EH Bilduk, baina, goranzko joera erakusten du. Zer aurreikuspen duzue?** Anomalia politiko bat da EAJk Bizkaian duen hegemonia. Bizkaia ez da eskuindarra, eta, gure ustez, epe labur-ertainean ezkerreko alderdi bat egon beharko da gobernuan; uneotan, paper hori bete dezakeen alderdi bakarra EH Bildu da. Beraz, aurrerapausoak ematen jarraitu beharko dugu; inkestek hori aurreikusten dute, eta, apaltasun osoarekin, uste dugu aukerak dauzkagula Bizkaian inoizko emaitzarik onenak lortzeko.

**Eta, eskualdean, zer emaitza espero duzue?** Bizkaia mailako joera Uribe Kostan ere erreplikatu delakoan gaude eta EH Bilduk gorakada nabarmena izango duela. Uste dugu herri batzuetan alkatetzak eskuratzeko edota berres-

kuratzeko aukera handiak ditugula, eta irabazteko aukerarik ez dugun udalerrietan, dudarik gabe, ezkerreko alternatiba bakarra bihurtzeko bidean gaude.

**Zer balantze egiten duzue legealdi honen inguruan, eta zeintzuk dira zuen alternatibaren ardatzak?** Azken urteotan EAJk lehenaldiko erantzunak eman dizkio etorkizuneko erronkei, eta, ondorioz, Bizkaian atzean gelditzen ari gara maila sozial eta ekonomikoan. Gure ustez, munduan gertatzen ari diren aldaketak ondo irakurri behar ditugu, eta, horren aurrean, lidergo publiko bat bultzatu aldaketak jendearen alde egiteko. Gobernantza-eredu berri bat behar dugu, irekia, gardena eta zintzoa. Instituzioak ezin dira elite batzuen gotorleku izan; zerbitzu, laguntza eta babes-sare moduan ulertu behar dira. Gainera, uste dugu politika ausartak egin behar direla gai estrategikoen inguruan lidergo publiko baten pean, besteak beste, abangoardiako politika sozialak garatzeko. ◀





Zinez diot **La Noche de...**

# Hainbeste aukera ezer ez aukeratzeko

**Zineman baino gehiago, arrakastak estreinatzeko borrokan dauden plataformak ugariak dira, ikusleak gero eta azkarrago erakarri guran.**

IÑIGO ESTEBAN LEZKANO ▶

**I**kusle bezala aukera handiak ematen ditu sofatik zer ikusi gura dugun aukeratzeko, eta entretenigarria da lagunekin komentatzea azken aldiak ikusi duguna, behintzat ikusi nahi ez duguna baztertzeko. Aldiz, grazia zuen, baita ere, bazkaldu edo afaldu ondoren sofan esertzeak telebistak eskaintzen zigun filma ikusteko, sorpresa atsegina askotan, hasita harrapatzen bagenuen ere. Askotan txarra zen, baina hurrengo egunean beti zegoen norbait ikusi zuena elkarrekin kritikatzeko aukera emanez.

Ondo legoke lagun batek afaldu ondoren ikusi duen azken filmari buruzko datu bi-txiak kontatzea, eta gero filma gure telebistan



## La Noche de...

**Jatorrizko izenburua:***La noche de...***Zuzendaria:**

Eduardo Llorente

**Aurkezleak:**

Felix Linares (1995-2023)

Dani Alvarez (2023-)

**Iraupena:** 30 min

jartzea. 1995etik horrela izan da, edo antzekoa. Gutxienez astean behin, Felix Linaresek zineaz hitz egin digu, eta, askotan, hura entzutea ondoren ikusiko genuen filma baino hobea izaten zen. Telebistan, baina batez ere irratian, horrenbeste denbora eman ondoren, jende guztiak ezagutzen eta errespetatzen duen pertsona da, eta hura ordezkatzeko zaila dirudi. *La Noche de...* ezin da amaitu, eta hemendik aurrera programa gidatzeko aukeratu duten pertsona ezin hobea dirudi: ETB 2-ko aurkezle berria Radio Euskadi-ko kazetari bikaina den Dani Alvarez. Ziur nago gaur egungo umeak taldeko zinemasaleenari «Dani» deituko diotela.

Programa batzuk ez dira inoiz amaitu behar, eta, filmak dauden bitartean, gure zinema-programa faboritoena mantendu beharko genuke. Gau asko ditugu aurretik etxean filmak ikusteko, eta Felixen programa, orain, Danirena da ere bai.

Beti izan da plazer bat zinemas dakiena entzutea, are gehiago ahots hori izanda. ◀

Irakurrian **Printzak begietan**

# Emakumea protagonista, 10 istoriotan

**Senez eta irudimenez sortu ditut emakumeak eta haien bizipenak, eta haien bizitzetan arakatzu mundu aberats bat aurkitu ahal izan dut.**

IRATXE ORMATZA ▶

**L**iburua proposamen bat da: goazen XX. mendera eta hurbiletik ikus dezagun garai horretako emakumeen bizipenak zelakoak izan ziren. Hamar ipuin irudikatu ditut, bat hamarkada bakoitzeko. Hamarkada bakoitzeko urte bat hartu, urte horretako urtaro bat aukeratu, eta Bilbon eta denbora-tarte zehatz batean ainguratu dut istorioa.

Bizkaiko XX. mendeko emakumeak irudikatu nahi izan ditut liburua osatzen duten 192 orrialdeotan. Irakurri ahala, etxe barruko giroa entzuteko moduan, kanpoko agertokia aldatu ahala: meategiak, Ibaizabal ingurua, garai bateko kaleak eta auzo berriagoak, txabolak... Halaxe aldatuko da testuingurua,



## Printzak begietan

**Egilea:**

Iratxe Ormatza

**Argitaletxea:**

Elkar

**Urtea:**

2023

**Orrialde kopurua:**

192

**Jatorrizko hizkuntza:**

Euskara

ekonomikoa, soziala, politikoa, kulturala eta linguistikoa. Irudimenean izan dut zelan bizi ziren andre haiek, zer egiten zuten, zer sentitzen zuten, zer pentsatzen zuten? Bizitza bera harrapatu nahi izan dut.

Emakume euskaldunak dira liburu hau osatzen duten ipuinetako protagonistak. Euskara da protagonista haien hizkuntza, eta hala ikusiko eta ulertuko dute mundua. Emakumeek aurre egin beharko diete askotariko arazoei eta egoerei, eta ondoan izango dute lagun bat. Izan ere, emakumeen arteko laguntasuna eta elkartasuna presente dago ipuin guztietan, bizitzan bezala.

Askotarikoak dira, berriz, liburuan proposatutako istorioetako emakumeak: txiroak eta hamaika lan egiten dutenak, pintoreak, musikariak, irakasleak, ikasleak, iraultzaileak, etxekoandreak, idazleak, dirudunak, fabrikako langileak...

Amak eta alabak. Bizkaiko XX. mendeko emakume haien bizipenetan ikusi ditut gure amak, amamak, birramamak, gure inguru-koak, gu behar bada. ◀





# Kalia

Izenburuak kalimotxo berbaren laburdura dakarkiguke gogora. Baina edarien arlora barik, kirolarenera eroango gaitu gaurko berbagaiak.

1911ko otsailaren 5ean artikulua bitxi bat argitaratu zuen *Novedades* izeneko aldizkari donostiarrak: «El golf es un invento de los vascongados». Haren arabera, golfa Euskal Herrian sortu zen, eta *kuñia* eta *kalia* izenak izan zituen, golf izena gure artean zabaldu aurretik. Artikulua *Kalikari* ezizenaz sinatu zuen egile ezezagun batek.

Jatorriak jatorri, *kali* edo *kalika*, eta *kuñi* izenez gain, beste euskal izen batzuk aurkitu zituen Julio Urkixo euskalari deustuarrak antzeko jokoak izendatzeko: *txurra*, *arrabilaka*, *perratxe* eta *anikote*. Dirudienez joko horiek guztiek golfaren zenbait ezaugarri zituzten, nahiz eta anikotea eta txurra gehiago erlazionatu diren cricket eta hockeyarekin golfarekin baino.

Baina golfaren jatorri lainotsutik, pasa gaitezen haren gailur loriatsura, Jon Rahm barrikostarra aipatuta. Hainbat marka ondu ditu gure eskualdekideak *koskadun* pilotatxoak asintzen hasi zenetik. Gaur egun golf arloan munduko lehenengo dugu. Eutsi horri!

Aurretik beste euskaldun bat izan genuen euskal golfaren goi mailan: Jose Maria Olazabal hondarribiarra. Ba al zenekiten Olazabal historiako lehen golflaria izan zela PGA europar zirkuituan lehen zortzi garaipenak arinen lortu zituena, Tiger Woods handiari pribilegio hori kenduta? Denboran atzerago eginda, beste handi batekin egingo dugu topo: Arnaud Massy miarritzarra. Ama zuberotarra eta aita bearnesa zituen golflari bikain hark, besteak beste, munduko golf txapelketarik zaharrena (Erresuma Batuko Irekia) irabazi zuen 1907an, Severiano Ballesteros kantabriarrak baino 72 urte lehenago.

Emakumezkoetan Carlota Ziganda ultzamarra nabarmendu zitzaigun, hamarkada batean era guztietako Irekiak eta txapelketak irabazi baitzituen (Miami, Erresuma Batua, Espainia, Austria, Frantzia, Portugal, Herbehereak, Txina, Alemania...). Ez dugu makala Kuko Ziganda futbol jokalaria ezagunaren iloba Carlota!

Taldeakako modalitatean, 2022ko Euskadiko Klubarteko txapelketan Laukarizko neskak eta Jaizkibeiko mutilak nagusitu ziren. Agian ez da txiripa hutsa talde biok Rahmen eta Olazabalen inguru berekoak izatea.

Beste baterako lagako dugu golf zelaiek edaten duten ur kantitatearena, hasieran esan baitugu edaria ez dela gaurko hizketagaia. Hemen antzinako kaliaz eta gure golflarien kalitateaz baino ez gara mintzatuko. Gora gure kirola eta bizitza luzea gure kirolariei! ◀



## Berba azoka

### *Kuñi*

Antzinako ume jolasa, golfaren zenbait ezaugarri dituen.

### *Kali*

Karli, kale, kuñi. Antzinako ume jolasa, golfaren zenbait ezaugarri dituen. Makila zabal baten bitartez egurrezko pilotatxo bat jo eta airez jaurtitzean datza. Makilari berari ere deitzen zaio *kali*.

### *Kalikari*

Kali kirolaren jokalaria litzateke.

### *Kalika*

Kalea. Antzinako ume jolasa, golfaren zenbait ezaugarri dituen. Gaztelaniaz *vilorta*.

### *Txurra*

Txurro. Anikotearen antzeko ume jolasa. Kirten luzeko mailu antzeko batekin zoruan den egurrezko bolatxo bat jotzean datza. Mailuari ere deitzen zaio *txurra*, edo *txurro*.

### *Arrabilaka*

Anikotearen antzeko ume jolasa. Zuberoako aldaera. Makila batzuekin jota, egurrezko pilotatxo bat zelai bateko alde batetik bestera jaurtitzean datza.

### *Perratxe*

Kaliaren antzeko ume jolasa. Golfaren antz handiagoa dauka, arrabilakak eta anikoteak baino.

### *Anikote*

Gipuzkoako antzinako ume jolasa, cricketaren antzekoa. Egurrezko bolatxo bat makila oker batzuekin jotzean datza, zelai bateko alde batetik bestera pasarazteko helburuarekin. Makilari ere *anikotea* deritzo.

### *Koskadun*

Koskak edo zuloxoak dituen.



**Maria Garaizabal** Oihal akrobatikoetako irakaslea

# «Oso beldurgarria da haurdunaldia emakume kirolarientzako»

**Duela 5 urte, Maria Garaizabalek Areetako La Fabrika zirku eta kirol-gunea ireki zuen bere senarragaz batera, eta, ordutik, egunero hainbat erronkari aurre egin behar dio.**

NAHIA MARTINEZ GONDRA ►

**Zer dira oihal akrobatikoak: artea, kirola edo bien arteko nahastea?** La Fabrika kirol-zentro artistiko moduan definitzen dut, eta oihalak ere niretzako nahasketa bat dira. Ez bazara kirolari trebea, ezinezkoa da zirkuko diziplina bat egitea. Kirolaria izanda eta sasoiaren egonda oihalak landu ditzakezu, puntu artistiko hori faltako zaizun arren. Ordea, oso artistikoa bazara, baina kirolariaren teknika edo indarra falta bazaizu, gutxi duzu egiteko.

**Zein da oihaletan hasten den jendeak duen beldur ohikoena?** Aurrenekoz oihaletik bota behar direnean jausteko beldurra dute, baina goian daudenez, bai ala bai bota behar dira, kar-kar. Oso dibertigarria zait euren lehen jaurtiketa ikustea. Hasieratik saiatzen naiz denetarik egiten.



18 urtegaraz Garaizabal Madrilera joan zen dantza ikastera. HODEI TORRES

## Beldurrak

«Lehenengo aldiz oihaletatik bota behar direnean jausteko beldurra dute ikasleek, baina goian daudenez, bai ala bai bota behar dira, kar-kar»

**Zer oztopo eduki dituzu irakasle gisa?** Emakume gisa, haurdunaldiaren gaia oso gogorra izan zen niretzat. Lanagaz ez dut gelditzeko astirik, beraz, ondo pentsatu behar izan nuen erabakia izan zen, nire gorputza bi urtez egongo zelako erabat geldirik edoskitze eta haurdunaldiaren ondorioz. Horregatik, zirkuko artista askok erabakitzen dute ama ez izatea, emakume kirolariarentzat haurdunaldia oso beldurgarria delako. Azkenean gainditu egiten duzu, eta lorik egin gabe bizi zara: 5 ordu entrenatzen dituzu 4 ordu lo eginda. Hala ere, oso gai sentitzen naiz amatasuna lanagaz uztartzeko. ◀

**ARANTZA ETXEBARRIA**  
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra  
Ortodontzia

Periodontzia  
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA

944 307 696

**GetxoGas**

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

**GetxoGason Euskararekin bat!**





Lehenengo kontsulta eta ekografia doan.

# Zain barneko laserra: barize lodiak desagerrarazteko teknika

**H**anquetako barizeen arazoarentzat konponbideren bat aurkitzen saiatu diren gizon-emakumeek hainbat tratamendu egiteko aukera topa ditzakete gaur egun, baina, halere, zalantza ugari izan ohi dituzte ezer egin baino lehen.

**KIRURGIA EDO SAFENEKTOMIA.** Kirurgia tradizionala edo safenektomia, guztien artean, tratamendurik erasokorra da. Anestesia orokorra edo errakideoa behar du, eta baita hainbat egun iraun dezakeen susperraldia ere. Gainera, berriro ateratzen diren barizeen indizea % 20koa da.

**N BUTIL ZIANOAKRILATO - ITSASGARRIA.** Itsaskorra, N Butil Zianoakrilatoa, tratamendu bereziki egokia da barize gutxi dituzten pertsona gazteentzat. Bigarren aukerako tratamendua da, bost urterako emaitza onak erakutsi dituzten ikerketen bermea du baita ere, zain barneko laserrarekin lortzen diren emaitzak hobeagoak baitira.

**ESKLEROSIA APARRAREKIN.** Ekografo bidez zuzendutako aparra edo esklerosia aparrarekin zain lodi gaixoen alaben tratamendurako teknika aproposa da. Tratamendu hau safe-na zainentzat ere aproposa da, baina barizeak berriro agertzeko aukera kontutan izan behar da; izan ere, aparrarekin tratatutako zainen % 40a berriro agertzen da.

Gomendagarria da baita ere ebakuntza egin duten eta berriro barizeak dituzten pertsonentzat, kirurgia berriro ere ez badute egin nahi.

**ZAIN BARNEKO LASERRA.** Zain barneko laserra lehenengo aukeratzat jotzen da safena zainetako gutxiegitasunak eragindako barize arazoarentzat. Horretan bat datoz hainbat nazioarteko mediku-erakundek.

Horrek esan nahi du beste tratamenduak baino lehenago gomendatzen dela, barizeak berriro agertzeko aukera gutxi daudelako, erasokortasun baxuko tratamendua delako (klinikatik oinez ateratzen da eta bizimodu ia normala egin daiteke) eta ebakuntza-ondokoa oso arina delako.

Laburbilduz, zain barneko laserra Dermiteken emaitzarik onenak izaten ari den tratamendua da. Izan ere, klinikari 2.900 kasu tratatu dituzte 2010etik, eta barize kasuen % 99,6 berriro ez agertzea lortu dute. Eta zer gertatzen da berriro agertzen badira? Dermiteken bermea eskaintzen dute: tratatutako barizea lehenengo urtean berriro agertzen baldin bada, berriz tratatuko dute, kosturik gabe.

P.S.E. 92/21



## DERMITEK

Uribitarte pasealekua 11-12  
48001 BILBO

(Zubizuri zubiaren ondoan; Moyuako metro-geltokitik eta Uribitarteko tranbia-geltokitik hurbil)

Telefona  
944 010 110

Astelehenetik barikura:  
8:30-20:00

Zapatuetan:  
9:00-15:00




# Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



AURREKO  
SOLUZIOAK



## Aldea dago!

Aurki itzazu bi irudion  
artean dauden aldeak;  
14 dira guztira.







### Zeeer?!!

Zer diote gure laguntxoek? Hasi bakoitzaren gezitxotik eta lotu hizkiak banan-banan, hariari jarraituz. Puntu urdinak hitzen arteko espazioak dira.

Idatzi lauki banatan pertsonaia bakoitzaren esaldia.



### Sudokua

Bete hutsuneak HODEIA hitzak dituen letren bidez. Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



### Zer da?

Animalia eder honek aintzira eta ibai bazterrak ditu gogoko. Oso ongi daki igerian, eta arrainak jaten ditu. Zoritxarrez, halako gutxi ditugu Euskal Herrian. Ba al dakizu zer izen duen? Ez badakizu, eraman beheko hizkietako bakoitza dagokion lekura eta hortxe agertuko zaizu.





## Euskal diaspora

### GOTZON BATIKON ETXEGARAI



**M**aiatzaren lehenengo egunak eta Euskal Herrian uda usaina geroz eta hurbilago dagoen bitartean, itsasoaren bestaldean, udazkenarekin hotza eta hosto multzo ugari batzen hasi dira karraketan, kaleko txakurrentzat koltxoi erosoak sortuz. Euskal etxetik egiten ari naiz sorterriarekin konexioa eta erdi nostalgiko nagoela aitortu behar dut. Udazkena izango ote da? edo Udaberriaren beharra? Egia esan, euskal etxeek ederki betetzen dute bere funtzioa. Ateak ireki, ikurriñak, euskal musika edota euskara klaseetan murgildurik, ozeanoaren ur zabaletan zehar gure sustraiak hazten direla dirudi. Ameriketako lurraldeetan, gure zenaren adarrak ureztatzen direlarik. Mugetatik harago, bagara munduaren norabidea idazten doan herria. Argentinan esaterako, kalkulatzen da populazioaren ehuneko hamarrak euskaldun jatorria duela (lau milioi pertsona inguru). Instituzioetan, kiroleetan, kulturean... eremu sozial eta politikoetan euskal abizenak topatzea normala da. Baita hirietako enparantzetan, edota ereserki nazionalaren konposizioan. Harro egon gaitezke beraz, gure haziak mundu zabaletik hedatu baitira.

## Egunon!

### AINHOA ORTELLS IGARTUA Kulturgilea eta artista



**7:27**~ Kuadrilla: -Egunon!! 🥰🥰🥰 // -Egunon titis! ☀️ // -Egunones! ❤️👉 // -Super egun ona izan! ☀️  
**7:43**~ Iran: -Ainho!!! Patinetea lapurto didate... 😞 // -Supertriste nago... // audio 2:35 min  
**8:00**~ A.A.: -audio 4:38min // -Txapita gosaltzeko 😊👉  
**8:30**~ A.L.: -Ikusi duzu bidali dizudan dokumentua?  
**8:45**~ ikas.lh2: -Zeinek ziren gaurko etxerako lanak? Ezin dugu ulertu agendan A.K. idatzi duena....!!! // -Z.B.ri buruz informazioa bilatu behar da // -Bai, info bilaketa 👉 // -Etxerako lanak zeuden!?!?! 😞 // -jejeje. Animo! // -Biharko zirela esan zuen L.k... 😊👉  
**8:47**~ Hiruka: -Aupa Ainhoa! Zer moduz? // -Idatzi ahal izan dozu zerbait?  
**9:01**~ Ortells & cia: -Zorionak Garazi! Egun ona pasa!! 🥰👉 // -Zorionak! Ondo pasa ❤️ // -Garazi! Zorionak zure egunean! 🎂 // -Happy birthday!! 🎉👉 Esnatu eta hamaika mezu... Itzali dezaket telefonoa ja? 😞 Gainera, betile bat sartu zait begian. Mari Carmeni eskatu beharko diot laguntza. 84 urte ditu, eta dakidala ez dauka ezta WhatsAppik. Baliteke gainera pare bat muxu ere debalde eroatea 😊 Detox.

# Zer egin dezakegu Erandion euskarari bultzada emateko?

**E!**  
Erandio  
UDALA  
AYUNTAMIENTO

2. URRATSA: ERANDIOKO EUSKARA SUSTATZEKO VI. EKINTZA  
PLANAREN LEHENTASUNAK FINKATZEA ETA HELBURUAK LORTZEKO  
EKINTZAK PROPOSATZEA

### 1. DEIALDIA:

**MAIATZAK 30** - 9:30 GAZTETXOKOAN, 1.1 GELAN

### 2. DEIALDIA:

**MAIATZAK 31** - 14:30 GAZTETXOKOAN, 1.1 GELAN

### 3. DEIALDIA:

**EKAINAK 1** - 18:30 JOSU MURUETA KULTUR ETXEAN, GELA URDINEAN

AUKERATU LAN SAIO BAT ETA ASISTENTZIA KONFIRMATU:  
944 890 128 / euskara@erandio.eus / 📞 636 576 245





# hirukalagunen txokoa

# Sari ederrak eskura!

## Zozketa

### Errigorako otzara

Nafarroako uztarik onena batzen duen otzara eder hau zozkatuko dugu HIRUKAlagun guztien artean. Aukera paregabea galduko duzu? Ez, ezta? Bada, eman izena!



Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 6a (martitzena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.

## Zozketa

### Joao liburua

Ibaizabal argitaletxearen eskumenez, 14 urtetik gorako nerabeentzako eleberri eder hau zozkatuko dugu gure irakurle guztien artean. Irakurri gura duzu? Bada, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 6a (martitzena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



## Zozketa

### Printzak begietan liburua

Idazleak berak dointzan emanda, Elkar argitaletxeak argitaratutako liburu interesgarri hau zozkatzeko dugu. Irakurrian atalean duzue horren nondik norakoak... Zeren zain zaude?

Zozketan parte hartu gura baduzu, ekainaren 6a (martitzena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa HIRUKA.eus webgunean.



## Zelan egin HIRUKAlagun?

**Webgunean:** [hiruka.eus/harpidetza/laguna](http://hiruka.eus/harpidetza/laguna)  
**Idatziz:** [hirukakoop@hiruka.eus](mailto:hirukakoop@hiruka.eus)  
**Deituz:** 944 911 337 • 688 812 368

**Urtean 35 euroren truke,** Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.







**EGINGO  
DUGU.**

# Mait duzun Bizkaia

**Etxebizitza  
eskuragarria  
izan dadin.**

---

*Emantzipatzea eta  
jaio garen lekuan  
bizitzea ahalbidetuko  
duten politikak.*

Bozkatu

**ehbildu**